

KONFERENTZIA GGKE 2000

Elkartasuna mundu mailara zabaldu
Giza garapena eraiki

KONKLUSIOAK



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



EUSKAL KOMUNITATE AUTONOMIKOko
G.G.K. EEN KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA DE O.N.G.D.
DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA

K O N F E R E N T Z I A G G K E 2 0 0 0

Elkartasuna mundu mailara zabaldu
Giza garapena eraiki

KONKLUSIOAK





INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Ekonomia eta Empresa Zientzien Fakultatea

Lehendakari Agirre etorb. 83 48015 Bilbo.

Tfnoa. 944 47 35 12 • Faxe: 944 76 26 53

E-mail: hegoa@bs.ehu.es

<http://www.ehu.es/hegoa>



EUSKAL KOMUNITATE AUTONOMIKOko
G.G.K.Een KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA DE O.N.G.D.
DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA

Bailén, 1 - 2º dpto. 13 • 48003 Bilbao

Tfnoa./faxe: 94 415 03 00

E-mail: coordongd@arrakis.es

2000.eko urriak, Bilbo

Diseinua eta maketazioa: Marra

Imprimatzailea: Berekintza, S.L.

Lege-Zenbakia: XXXXX

aurkibidea

Aurkezpena	5
Konklusioen laburpena	9
1. Garapenerako lankidetzak: GGKEetatik begirada kritikoa	19
2. Garapenerako lankidetzaren helburu eta estrategia berriak	31
3. GGKEen barne dinamikak	39
4. GGKEen eta beste eragile sozial nahiz instituzional batzuen arteko harremana	47
5. GGKEen harremanak Hegoarekin	55
6. GGKEak eta gizartearekin komunikazioa	63
7. Garapenerako heziketa, gazteria eta solidaritatea	69

Aurkezpena



Bilbon, 2000ko apirilaren 13tik 15era, "Elkartasuna globalizatu. Giza garapena eraiki" goiburutzat zuen GGKEen Biltzarra egin zen, hala Euskadin nola gai-nontzeko estatuan garapenerako gobernu kanpoko lankidetzaren alorrean lanean ari diren lauhun lagun inguruk parte hartu zuelarik.

Egungo egoerari buruz eta gobernu kanpoko lankidetzak aurrean dituen erro-kei buruzko gogoeta gune bat eskaintzeko asmoarekin deituta, Biltzarrak hona-ko gai hauek jorratu zituen: munduko testuinguru ekonomiko eta politikoetan gertatu diren aldaketek lankidetzaren helburuen eta estrategien gainean izan duten eragina aztertzea, azken hamarkadan zehar aplikatu diren lankidetzako poli-tikak ebaluatzea eta GGKEei kezka handiena sortzen dieten alderdiak, hala Hegoko instituzio, gizarte-eragile nahiz erakundeekin dituen harremanetan nola bere funtzionamendu eta barne dinamiketan, mahai gainean jartzea.

Biltzarreko lan bilkurak formatu bikoitz honen arabera garatu ziren: batetik, garapenari buruzko eta Hego eta Iparreko lankidetzari buruzko gaietan adituek euren gogoetak aurkeztu zituzten hiru osoko bilkuratan; bestetik, parte hartzai-leek euren kezak eztabaidatzeko aukera izan zuten Biltzarrean zehar funtzio-na zuten Gaikako zazpi Tailerrean.

Biltzarrean parte hartu zuten gehienek oso egoki iritzi zioten tailerren esparru honi, batzarreratuek gaikako eztabaidetan gehiago parte hartzeko, eta hori berri-kuntza bat izan zen halako ekitaldi jendetsuetan aplikatu ohi den metodologian.

Tailer horien prestaketak zenbait hilaibeteko lana eman zion GGKEekin lotutako lagunen zazpi talderi, eztabaidetarako dokumentu-oinarriak lantzen, euskarri-material osagarriak bilatzen eta adituei euren txostenak aurkezteko gomita egi-ten, eztabaidagai aberatsagoa zabaltzearen tailer bakoitzean.

Dokumentu horiek gai bakoitza jorratzeko behar diren osagaiak eskaintzen zituzten arren, ez zuten xedetzat arazoan formulazio bukatuak eskaintzea, ezta tailerreko eztabaidaren bidez lortu beharreko konklusioak aurreratzea, baizik batik bat eztabaida zentratzeko, argumentazioetan sakontzeko, bakoitzaren parte hartzea ahalbidetzeko eta gero lanerako konklusioak nahiz alternatibak lantzeko tresna baliagarriak luzatzea.

Eskuetan duzun argitalpenak antolaketa eta hausnarketa prozesu kolektibo horren emaitzak aurkezten ditu. Tailer lanerako prestatu ziren zazpi dokumen-

tuak daude bilduta, baina tailer bakoitzeko eztabaidatik sortutako beste ekarpen, kritika, ebazpen eta proposamenekin berrikusiak eta aberastuak.

Jatorrizko dokumentuak bezala, azken dokumentu hauek ere anitzak dira, hala ideiak aurkezteko erari nola horien sakontze mailari dagokionez; talde-lanaren emaitza direnez, tailer bakoitzean parte hartu zuten kideen eta, orobat, Biltzarrean esku hartu zuten lagun guztien gogoeta ahalegina eta proposamen ahalmena islatzen dute. Halaber, eduki ugari eskaintzen dute GGKEek garapen gizatiar eta bidezkoa eraiki nahian burutzen dituzten jardunbideak berrikus, estrategiak birformula eta ahaleginak indarberri ditzaten.

GGKE 2000ko
Batzarraren Konklusioak

Konklusioen laburpena



Garapenerako lankidetza: GGKEetatik begirada kritikoa

1. Garapenerako Laguntza Ofiziala gutxitu duten testuinguru honetan, laguntza-ren elkartzea eta hautespena bezalako terminoek baldintzapen berriak eta baliabideen murrizketak estaltzen dituzte eta, erretorikaz harago, suposatzen dute emaileek dutela laguntza politikaren kontrol ahalmen osoa eta hartzaile-ei euren agenda inposatzen segitzen dutela. Hartara, pobrezia-aren eta larrialdia-aren aurkako borroka humanitarioak bigarren planora baztertzen du egiazko helburua: *giza garapen eutsigarria*, lparrean funtsezko aldaketak egitea ere inplikatzeko duena.
2. Gizartearen presioa eta lankidetzak duen legimititatea gorabehera, Garapenerako Laguntza Ofizial espainiarra ez atzera ez aurrera dago BPGaren %0,24aren inguruan eta interes komertzialak dira nagusi. Hala ere lankidetza deszentralizaturako laguntzek gora egin dute, batez ere Euskal Herrian, eta GGKEen bitartez bideraturiko laguntza gehienbat berreskuratzeko denez, kontrapuntu bat suposatzen du seinalaturiko joera batzuekiko.
3. Euskal Herriko Autonomi Erkideagoaren barruan, aurrekontuetako konpromisoetan konkretatutako den lankidetza politika publikoaren beharizanaren ideiak indarra hartzea aurrerapauso handia izan da. Hala eta guztiz ere, oraintxe arte ez dugu izan egiazko lankidetza politikarik eta, horregatik, premia-premiazkoa da Eusko Jaurlaritzak marko doktrinal, estrategiko eta juridikoa definitzea, euskal lankidetzaren eragile ezberdinak bertan txerta daitezen eta inplikaturiko administrazio guztien arteko koordinazio eraginkorra bermatutako duten mekanismoak abian jar daitezen.
4. Lorpen esanguratsua da, halaber, gobernu kanpoko erakundeek gizarte-ehundura bat egotea, gizarte mobilizatzeko gai dena eta bere zerbitzua hobetu nahian diharduena. Lankidetzaren eragileen prestakuntza egindako inbertsioa eta erakundeetan metaturiko esperientzia, horra hor oinarriak ezartzen ari diren bi faktore, etorkizunean GGKEek eta instituzioek euskal lankidetzaren kalitatea hobetzea lor dezaten. Hala ere, Euskadiko Lankidetza Kontseilua, eratu zenean administrazioaren eta gizarte eragileen topagune izango zelako itxarobideak

sortu bazituen ere, ez da oraindik iritsi engaiaturiko eragile guztiak zintzoki elkartzeko gune izatera. Gainera, ezinbestekoa da Kontseilua lankidetzaren programak kudeatzeko behar bezainbat langile prestatuz hornitzea.

5. Beharrezkoa da GGKEek administrazioarekin mintzakidetzaren eraikiorra izatea. Gainera, "proiektua" lankidetzaren tresna bakartzat hartzen duen eskema gaindituko duten alternatiba errealek bultzatu behar ditugu, lankidetzaren munduan beste gizarte eragile batzuk inplikatu behar ditugu, mundu horretara euren ezagutzak, trebetasunak eta esperientziak ekar ditzaketenak eta lankidetzaren eremu soilari dagozkionak baino proposamen politiko zabalagoak formula ditzaketenak. Honek GGKE koordinakundearen eginkizuna topagune eta hausnarketa kolektiborako eremu gisa indartzea eskatzen du.

Garapenerako lankidetzaren helburu eta estrategia berriak

6. Munduko ekonomiak izan dituen aldakuntza sakonek lortu ahal den eta nahi dugun garapenari buruzko hausnarketa egin beharra ekarri digute. Egun gero eta gehiagok onartzen du garapena ezin dela identifikatu hazkunde ekonomiko hutsarekin; hazkunde hori beharrezko baldintza da egiazko garapenaren prozesua burutu ahal izateko, baina bera bakarrik ez da aski horretarako. Garapenaren kontzeptuak eboluzionatu egin du azken urteetan eta, mota ekonomikoko osagai tradizionalak gain, bere baitan hartzen ditu orain, orobat, jite sozial eta kulturalen osagaiak, eta hainbat puntu garrantzitsurekiko erreferentziak, hala nola giza eskubideekiko, genero parekotasunarekiko eta ingurumenarekikoak.
7. Bilakaera honetan jarritako mugari garrantzitsu bat garapena benetako giza eskubidetzat, pertsona eta herri guztien eskubidetzat hartzea izan da. Honek zera suposatzen du, alegia, garapenaren karitatezko edo sorospenerako ikusmoldea edukitzetik (garapenerako laguntza herrialde industrializatuen borondate onaren menpe legoke) garapena giza eskubideen teoriaren baitan sartzen duen ikusmoldea edukitzera pasatzea. Hartara, egiazko *herritartasun unibertsala* aintzat hartzea pasatzen gara, planetan bizi diren pertsona guztiek euren duintasunerako ezinbesteko dituzten ondasun eta zerbitzuen hartzaile jator bihurtuz.
8. Munduko pobrezia bere hartan irautea, gehitzea ez denean, herri guztien garapena erdiesteko ahaleginek aurrean duten oztoporik handien bihurtu da. Pobrezia jo eta errotik erauzteko helburua organismo aldeanitzekoak eta gobernuak formulatzen dituzten garapenerako lankidetzaren erronka nagusi-

tzat hartzen da, pobrezia hitzaren baitan arras eduki ezberdinak egon daitezkeen arren. Pobrezia ezin da hartu zenbait herrialderen arazotzat, planeta osoari dagokion arazotzat baizik; pobreziaren kausak zeintzuk diren ulertzeko, mekanismo ekonomikoek nola funtzionatzen duten eta pobreziarekin zer-nolako erlazioa duten aztertu eta argi ikusi beharra dago. Pobreziaren erauzketa ardatz nagusitzat daukan lankidetza estrategia asmatu eta landu behar da, erauzketa hau dimentsioanitzeko perspektibatik ulertuta, nahiz eta, aldi berean, pobreek dituzten eguneroko premiei erantzun eta premion kausak konponbidean jarri beharko diren.

9. Garapenaren kontzeptuak *giza garapen* baterantz jotzen du, hala pertsonen gaitasunak eta autonomia nola euren aukeren egikaritzea inolako diskriminaziorik gabe hedatuko duen garapena. Garapen honexen aldeko apustua egin behar dute GGKEek, ildo honetatik bideratuko den lankidetzara egokituz beren baliabideak nahiz proiektuak eta gizateriaren gero eta zati handiagoaren bazterketa, marjinazioa eta ikusezintasuna sortzen dituen nazioarteko sistema auzitan jartzen lagunduko duten kideak izanez.
10. Planteamendu hauek GGKEen jardueraren irizpide gidariak izatera irits daitezzen, ondoko honetara konprometitu behar dugu:
 - Errealitate berrietara etengabe egokitzea eta injustizia berriei erantzun egokiena ematea ahalbidetuko digun gogoeta, eztabaida eta prestakuntza gune bat gure erakundeetan sortzeko baldintzak lantzea.
 - Planteamendu horiek eraginkorki sartzea gure estrategia eta lan plangintzen lanketan, helburuek aipaturako lehentasunei erantzun diezaieten egiazki.
 - Darabiltzagun lankidetza tresnen, gure erakundekideekin ditugun harremanen, lanean gabiltzan sektoreen, etab., berrikusketa sakon bat egitea, gure jarduera giza garapenaren ildotik erabakiorki bidera dadin.
 - Hegoko mugimenduen lagun izatea euren etorkizunaren subjektu kolektibo eta protagonista bihurtzeko kontzientziazioan.
 - Lehentasuna ematea gure gizarteetan jarrera eta balio aldaketa sustatzeko, hala nola aipaturiko helburuak lor daitezzen autoritateen aurrean presio-eragileak izateko eginkizunari.

GGKEen barne dinamikak

11. GGKEok urrats berriak eman behar ditugu gure eginkizunaren eta helburuen definizio argi eta eguneratuari dagokionez, eta gure lan eta funtzionamen-

duaren alderdi guztiak barne hartuko dituen plangintza estrategiko bat egin definizio horren arabera. Bereziki, giza garapenaren alde lan egin eta gure nortasun kolektiboa birpolitizatu beharra hartu behar dugu gogoan, gizarte-aldaketaren egiazko sustatzaile izan gaitezen, baliabideen kudeatzaile soilaren eginkizunera mugatu gabe.

12. GGKEok hartzen ditugun eraketa-eredu guztiak berdinki baliozkoak dira eta dimentsio funtzionala dute batik bat; egitura gure helburuekin koherentea izatea da garrantzitsua. Halere, beharrezko deritzogu egitura bereziak eratzeari, proiektuen kudeaketa burutzeko, batetik, eta bolondresen nahiz elkarturiko pertsonalaren atentzio osoa planifikatu eta beste gizarte-eragileekin batera ekintzak koordinatzeko bestetik.
13. Gure eginkizuna betetzeko, GGKEok barne koherentzia handiagoa eta kanpo laguntasun handiago eta konprometituagoa erdietsi behar dugu. Gizarte-oinarri sendo bezain partehartzailea eratu behar dugu, gizartearen konfiantza irabaziz gardentasunaren eta heziketaren bidez, planteamendu argi eta definituekin. Aitortzen dugu gure hurrengo erronketariko bat erakundean esku hartzen duten eragile guztien integrazio prozesuei atentzioa ematea dela (bolondresak, profesionalak, pertsonal erkidetua, zuzendaritza-koa nahiz lankidetzakoa), baita haien prestakuntza ideologiko eta teknikoaren premiei erantzutea.
14. Gure independentzia ideologiko nahiz politikoari eusteko, GGKEok gure finantzaketa iturriak dibertsifikatu beharra daukagu. Fondoan lorpena, dela publiko nahiz pribatuena, koherentea izan behar da betiere erakundearen helburuekin.
15. Egungo barreiapena eta zatiketa zuzendu, programen eragin handiagoa lortu, gure lankidetzaren hobetu -GGKE bakoitzaren aberastasuna eta berezitasuna arriskuan jarri gabe-, bolondresen partaidetzarako estrategia eta dinamika bateratuak sustatu, proposamen alternatiboak landu, lankidetzaren politiken diseinuan irizpide solidarioekin parte hartu eta lankidetzaren publikoaren kalitatea hobeto dezaten instituzioak presionatzeko koordinazio sare eta egiturak sustatu behar ditugu (horizontalak nahiz bertikalak).

GGKEen eta beste gizarte-eragile batzuen arteko harremanak

16. Giza garapen eutsigarri eta bidezkoan oinarritutako lankidetzaren ikuspegi honek, berriz, GGKEok nazioarteko lankidetzaren eskuhartzen duten institu-

zioekin eta beste gizarte-eragile batzuekin ditugun harremanak birplanteatu beharra dakarkigu. Berezik, bertoko gizarte-mugimenduekin lokarriak sendotzera eta inguratzen gaituen errealitatean gehiago inplikatzera behartzen gaitu, horixe baita modu bakarra diskurtso kritiko bat entzutera emateko eta errealitate honen eta Hegoko gizartearen errealitatearen artean lokarri sendo-agoak gauzatzeko. Zentzu honetan, proiektuei eta sentiberatzeari -GGKE gehienen bi lan esparru garrantzitsuenei- beste erakunde eta mugimendu batzuekin batera burutzeko harremanen eta kanpainen esparru bat gehitzeak hobetu egingo luke gure eragin sozial eta politikoaren ahalmena.

17. Benetan eraldatzailea izango den praktika baten eta egungo globalizazio neoliberalaren aitzindari diren instituzio, foro eta eragileengan kritika eta intzidentzi lan baten garapenak, berriz, nazioarteko gizarte zibilaren sareetan modu aktiboz sartzea eskatzen du, lan horri lehentasuna emanaz eta gure ahalegin, energia eta baliabideen zati handi bat hartara zuzenduz. Beste gizarte-mugimendu batzuekin elkartzeko premia honi garrantzia ematen diogu, geuk nahi dugun globalizazio ereduari buruzko diskurtsoa eta praktika kohesionatzeko: hots, justizia soziala, aberastasunaren birbanaketa, genero parekotasuna eta ingurumenarekiko begirunea lehentasuntzat hartzen dituen eredia.
18. GGKEok beste gizarte-eragile batzuk (unibertsitatea, sindikatuak, eskolak, osasun zentroak, langile kolektiboak, nekazariak...) Hegoko euren kideekin truke proiektuetan zuzenki parte har dezaten bultzatu behar dugu, ezagutza zuzena eta bata bestearekiko elkartasun horizontala ahalbidetzeko tresnak, partzuergoak eta trukeak sustatuz. Gure erantzukizuna da erakustea mundu guztiak duela bere eginkizuna elkartasunean eta lankidetzan; beraz, protagonismoa bazterrera utzi eta "trukeak errazteko eta dinamizatzeko" eginkizuna hartu behar dugu, gizarte osoa beregana dezan lankidetzaren solidarioaren erantzukizuna. Azken batean honako ideia hau sustatu behar da: elkartasunak, dirua ekartzea baino gehiago zuzenki inplikatzeko esan nahi duela, etengabeko truke lana burutuz behartsuenen errealitatearekin.
19. Beste alde batetik, beren lankidetzaren ekimenetan bestelako interesei (ekonomikoak, politikoak edo irudi komertzialekoak) lehentasuna ematen dieten instituzio publiko nahiz pribatuak erabil gaitzaten ekidin behar dugu. Lankidetzaren kontuan "denak balio duelako" jarrerak, solidaritate interesatu eta merkantilizatuak, izan ere, elkarrenganako begirunetik eta truketik abiatuta gure errealitatea auzitan jartzen duen lankidetzaren solidarioaren balioa andeatzen baitu. Interes partikularrei edo lankidetzaren solidarioaren kontrako interesei erantzuten dieten politiken aurrean "ez lankidetzako" neurri eta jarrera publikoak praktikan jartzea proposatzen dugu. Era berean, GGKEek instituzio publikoei beraien gainerako politiken koherentzia eskatu behar diegu giza garapenaren, bazterketa sozialaren kontrako borrokaren eta ingurumen eutsigarritasunaren ildotik.

GGKEen harremanak Hegoarekin

20. Hegoko gure mintzaideekin ditugun harremanak, orain arte, baliabideak batik bat proiektuen izenean bideratzean oinarritu direla ikusten dugu. GGKEok ez dugunez nahi baliabideen kudeatzaileak izatea soilik edo batik bat, ezta ere horretan oinarritzea Hegoko erakundeekin ditugun harremanak, gure eginkizuna egitura-aldaketaren alde definitzera behartzen gaituen nor-tasun krisi bat planteatzen zaigu (zer gara?, zer izan nahi dugu?).
21. GGKEon eta gure erakundekideen artean sortzen den harreman bakarra "legitimitatearen izenean" baliabideak bideratzera mugatzen denean, harreman horien kalitatea ez da inondik ere behar bezalakoa. Harremanok hobetzeko, nazioarteko ekonomi erlazioen arazo nagusiekin lotutako xede komun araberako lankidetzaren eremua hedatu beharra dago; proiektuak politizatu beharra, hauek garatzen diren testuinguru ekonomiko eta politikoari arreta eskainiz; lanean dihardugun elkarteekin "zubi berriak" eraiki beharra, presio estrategia komunak, sareak eta alian-tzak, informazio trukeak eta, azken batean, egiazko elkarte harremanak eraiki ditzagun.
22. GGKEen eta Hegoko GKEen arteko elkarriketa horizontal eta begirunetsu-rako prozedurak eratu behar ditugu, egitura-aldaketaz, nazioarteko lankide-tzaren helburuez, xedetzat dugun garapen ereduaz, genero parekotasunaren esanahiaz, aurre egin behar zaien lehentasun eta premiez, lankidetzaren politika publikoen aldaketan GGKEoi dagokigun eginkizunaz, etab., ulertzen dugunari buruzko eztabaida sartuz gure harremanetan.
23. Europako Batzordeak Hegoko erakundeak zuzenean finantzatzeko aurreiku-sita dituen jarraibideak arazo-iturri izan daitezke, baina baita aukera-iturri ere GGKEentzat, gure eginkizuna birdefinitzera, gure jardun-eremua heda-tzera eta egiten dugun lana geure gizartearen aldaketari begira gehiago foka-tzera behartzen gaituen heinean.

GGKEak eta gizartearekin komunikazioa

24. Ikusten dugu instituzioek eta GGKEek eurek ere ez dutela hartzen benetan lehentasunezko zeregintzat sentiberatze lana. Horregatik, premia-premia-koztat jotzen dugu sentiberatzearekin nahi ditugun xedeei buruz gogoeta egitea; argitzea gure jardueretariko zeintzuek erantzuten dieten eta zein-

tzuek ez dieten erantzuten xede horiei; jarduera horietan zabaltzen ditugun ideiak berrikustea; gure lanak alor horretan duen eraginaren adierazleak definitzea; instituzioak presionatzea fondo gehiago zuzentzera sentiberatze jardueretara; eta baterako kanpainak eta ekintzak burutzea.

25. *Kausadun marketingari* dagokionez, uste dugu helburuak ez duela justifikatzen edozein bitarteko erabiltzea. Horregatik, gure errefus orokorra adierazten dugu GGKEen ekintza gidatzen duten balioak komertzializatzeari (adibidez, solidaritatea) enpresekin egiten diren harreman komertzialen bidez..
26. Ikusten dugu, halaber, hedabideekin dugun harremana ez dela jariaikor ez emankorra, eta horrek eragin negatiboa daukala gure lanak iritzi publikoan duen inpaktuan. GGKEek hantxe egoteko ahalegina egin behar dugu, ez soilik notizien espazioetan, baizik baita iritzia sortzen duten beste espazioetan ere, analisiak, azalpen alternatiboak eta proposamenak ekarriz. “Notizia sortzearen” garrantzia ere ikusten dugunez, problematika jakin batzuk hedabideetan agertzea ahalbidetuko duten ekintza publikoak burutu behar ditugu.

Garapenerako heziketa, gazteria eta solidaritatea

27. Egungo gazteriak Garapenerako Heziketa alorrean egiten dugun lanean kontutan hartu beharreko zenbait ezaugarri ditu: egunerokora mugatzea (ikasketak, familia, lagunak), instituzioetan konfiantza gutxi, desideologizazio eta despolitizazioa, gizarte-militantzia murrizta, gizarte-sentiberatasun jakin bat eta berdintasun, solidaritate eta tolerantziatzko balioen azaleratzea. Nagusi den neoliberalismoa, gainera, indibidualismo lehiakorrean, pertsonak hain erraz ordezkatzten dituen gizarte barnean gertatzen den jendearen domestikazioan, gehiegizko moldakortasunean eta halakoetan islatzen da. Testuinguru honetan, planteatzen zaigun lehen erronka, beraz, jende gaztea “erakartzea” da. Hezkuntz ekintzarako zenbait ildo: sufrimenduekin kontaktua erraztea, egunerokotasunetik irten daitezen; begi-bihotzak hezi; sentimenduan oinarritu, baina adimena ere landu kausa estrukturaleri arretea eskainiz; tokikoa eta mundukoa elkarlotu.
28. Garapenerako Heziketa (GH) egungo garapen ereduaren balio negatiboak gainditu eta partaidetza nahiz gizarte-eraldaketa ahalbidetuko duten balio berriak bultzatu nahi dituen heziketa kritikoa da. GGKEok errebindikatu eta bultzatu egin behar dugu GHaren dimentsio politiko eta ideologiko hau, eta, egitez, gizarte-talde jakin batzuengana iristea ahalbidetu diguten ekimen interesgarriak jarri dira abian GHan. Halere, ahaleginen koordinaziorik eza eta barreiapena, errutina eta epe laburreko ikuspegia, sistematizazioaren,

ebaluazioaren, komunikazioaren eta sareko lanaren bidez gainditu beharreko alderdi negatiboak ditugu.

29. Hezkuntza formalaren esparruan, irakasleriaren prestakuntzan eta metodologiaren garapenean nahiz didaktika estrategietan oinarritu behar dugu. Ez-formalaren esparruan, berriz, metodologia partehartzaileen erabilpenean hain tradizio luzea izanik, GH ohizko ikuspegi gisa sartu beharko litzateke. Azkenez, hezkuntzaren esparru informalean, hortxe dirau GH familian, hedabideetan eta horrelako esparru eragileetan sartu beharraren erronkak. Informazioaren eta mundu ikuskeraren analisi kritikoak gure lanaren tresna ezinbestekoa izaten jarraitzen du.
30. Gazteen lankidetzaren progamei dagokionez, funtsezkotzat jotzen dugu esperientzia horiek prestakuntza prozesu serio baten barnean kokatzea. Hegotik gogorarazten zaigu “bisita” horiek hango pertsonengan eta prozesuetan izan dezaketen eragina eta bisitaldion prestakuntza areagotzera deitzen zaigu. Bisita ondorengo azalpenak ere erantsi beharko ditugu, han bizi izandako guztia prozesatzen eta lan egiteko nahiz parte hartzeko gogoia bideratzen laguntzeko. Solidaritatezko gizarte-mugimenduan (tokikoan nahiz nazioartekoan) parte hartzea izango da, izan ere, esperientzia horiek positiboak eta mobilizatzaileak diren frogarik onena.

1. Garapenerako lankidetza: GGKEetatik begirada kritikoa



Nazio Batuek duela hiru hamarkada jarri zuten xedea, herrialde aberatsek beren Barne Produktu Gordinaren %0,7a Garapenerako Laguntza Ofizialera (GLO) zuzentzea, inoiz baino urrutiago dago orain. Urte askotan zehar %0,35 inguruan zegoen batez bestekoarekin alderatuz, laguntza horrek, 1998ko gorakadatxo salbu, beherantz egin du etengabe 1993az geroztik, hala BPGari dagokionean nola termino absolutuetan. Horrela, XX. mendearen bukaeran, OCDEko Garapenaren Laguntza Batzordeko (GLB) kide diren herrialdeen BPGaren %20 baino gutxi gutxiagora iristen da. Joera hau batez ere EEBBei dagokio, duela urte batzuetara arte emaille nagusia, baina GLB barruan dauden 21 herrialdeetatik ia bakar bat ere ez da salbuespen.

Perspektibek baikortasun gutxi eskaintzen dute, zeren beherakada horren faktoreak egitura izaerakoak baitira funtsean. Batetik, *gerra hotzaren* amaierak garapen horri laguntza emateko motibo nagusietariko bat (kasu batzuetan erabakigarria) desagertzea ekarri zuen. Aldi berean, bloke sobietar-ohiko ekonomien iragapenak merkatu ekonomiara, garapenerako finantzaketa ofizialaren hartzailleen zerrenda gehitu egin du, ondorioz fondo desbideraketa eraginez Hirugarren Munduko hartzaille tradizionalen kaltetan. Bestalde, ekonomi politika neoliberala nagusitzeak bere aurrekontu-orekaren obsesioarekin, fondoan erabilgarritasunaren murrizketa dakar ondoriotzat, hori argi islatzen delarik zenbait herrialde emaille azken urteotan egindako laguntza sistemen erreformatan. Gainera, pentsaera neoliberalak zuzenki erasotzen ditu garapenerako laguntza publikoa oinarritzen duten printzipioak. Horregatik, emailleen zikoizkeria estaltzen duten *laguntzaren nekea* eta antzeko erranen atzean, *pentsamendu bakarrak* Estatuen jarduerarekiko duen deskonfiantza sakona nabari da.

Garapenaren finantzaketa ofizialaren murrizte orokor honen barruan, herrialde emailleek aldebiko laguntza nahiago izaten jarraitzen dute, guztizkoaren hirutik bi inguruan darraierna, zeinetatik laurden bat baino gehiago laguntza lotua baita. Bitartean, alde askotako laguntzari -printzipioz neutral eta desinteresatuagoa-, funtsezko murrizketak ezarri zaizkio, batez ere Nazio Batuen sistemaren agentzia espezializatuei ematen zaizkien borondatezko laguntzei dagokienez. Horrez gain, gerrek eta hondamendi "naturalek" eragindako krisi humanitario ugaritan lagundu beharrak ere garapenerako lankidetzat jatorra litzatekeena larrialdi lane-tarantz desbideratzea areagotu du.

Laguntzaren kalitatea eta xedeak

Laguntzaren eraginkortasuna zalantzan jarri da hirurogeiko hamarkadaren erdialdetik honantz, eta proiektu askoren banakako ebaluazioek lankidetzak ekintzen eragin garbi positiboa nabarmentzen bazuten ere, proiektuok hazkunde ekonomikora egiten zuten ekarpenari buruzko ikerketa erantsiek GLOaren eragin positiboa txikiagotzera jotzen duten emaitzak ateratzen zituzten oro har. Laurogeiko hamarkadaz geroztik laguntzak izan duen baldintzatasun orokortuak ez ditu hobetu emaitzak, zeren horrek oso gutxi eragiten baitu ezarritako politiken kalitatean. Eta ekonomi politika egokiak aplikatzea da, hain zuzen, laguntzak hazkunde ekonomikoan eragin positiboak izan ditzan premiazko markoa sortzen duena, azken ikerketek ondorioztatzen dutenez.

Laguntzaren eraginkortasunaren erantzukizuna hartzailearen bizkar uztera jotzen da, ematen den finantzaketaren kalitateari begiratzetik aldenduz eta duela bi hamarkadatik honantz alde askotako laguntzaren baldintzatzat jartzen den *doikuntza estrukturala* delakoak eragiten dituen gizarte-hondamendietan emaitza ematen erantzukizuna ekidinez. Zeren hazkunde ekonomikoa egon arren, horrek ez baitu bermatzen laguntzaren hartzaile omen den populazioaren ongizate handiagoa, eta laguntzaren inaktuaren ebaluazioa bilatzen diren helburuen arabera egin behar da. Horregatik, laurogeiko hamarkadan zehar emandako laguntzaren efikaziaz egiten den ebaluazioak azken urteotan sortu eta garatu den garapenari buruzko doktrina berriari erantzun behar dio; hau da, giza garapen eutsigarriara hurbiltzeko balio izateari.

Helburu hori, ordea, bitarteko xede batzuen lorpenean islatzen da, besteak beste pobrezia erauzteak, emakumeen eskumena ematea, ingurumen inaktuak txikiagotzea edota giza eskubideen begirunea sustatzea. Nazio Batuek laurogeita hamarreko urteetan antolaturiko mundu mailako goi-bilerek ekintza programa handinahia finkatu dute, helburu lorgarriak zehaztuz eta horiek lortzeko bitarteko bereziak proposatuz. Hala ere, orain arte lortutakoaren balorazioak ez dio bide ematen baikortasunari.

Horrela, adibidez, pobrezia erauzteko GNB/PNUDen proposamen bat oinarritzat hartuz 1995ean Kopenhagen egin zen Gizarte Garapenari buruzko Goi Bileran ebatzi zen *20:20 Ekimenak ez dauka beharrezko finantza babesik*. Gainera, baliabide erabilgarriak ez dira bideratzen batik bat pobrezia desageraraztera, ezta pobrezia hori larriagoa den herrialdeetan ere, baizik eta kasu gehienetan emaitza ematen interes komertzial eta geostrategikoen arabera erabiltzen da oraindik. Eta aurrerapauso batzuk eman badira ere, GLB barneko herrialdeak oro har beraiek 1996an onartutako eta “*XXI. mendea taxutuz: garapenerako lankidetzaren ekarpena*” deritzan dokumentuan islatutako konpromisoak betetzetik oso urruti daude. Horregatik, pobrezia erauzteko behar diren

baliabideak egon badaudela ezagutzen denez, borondate politikoari egotzi behar zaio, tamalez, mila milioi gizaki baino gehiago erabateko pobrezian sartzea XXI. mendean.

Laguntzari buruzko ebaluazio ikerketek emaileen portaerak aldaraztera ere bultzatu dute, halako “moda” batzuk sortuz. Horrela, GLBaren eta Mundu Bankuaren informeei esker, hirurogeita hamarreko bigarren zatian zehar *elkar-go*a (“partenariat”), laguntzaren *selektibitatea* eta halako ideiak orokortu dira emaileen artean. Testuinguru honetan, selektibitateak zera esan nahi du, politika egokiak ezartzen dituzten herrialde pobreenetan kontzentratzea laguntza, eta elkargoa, berriz, zenbait helburu eta pentsaeratan bat datozen laguntza hartzaileekin egiten da, adibidez pobrezia merkatuaren bidez gainditzeaz, generoaz, demokrazia eta ingurumenaz bat datozenekin. Erretorikaz harago, honek praktikan zera esan nahi du, emaileek jarraitzen dutela laguntza politikaren kontrol osoa edukitzen, beren agenda hartzaileei inposatzen. Izan ere, gehienetan entzun ere ez da egiten hartzaileen ahotsa, ez da haiekin lankidetzan jarduten, baizik eta gauzak eginda ematen zaizkie, hartzea ala uztea hauta dezaketelako premisapean. Horrek laguntza hartzaileen motibazioa itzali eta laguntza horren eraginkortasuna gutxitzen du.

Halere badirudi aski ezaguna dela, zatiz behintzat, nahiz eta oraindik gutxi eta gaizki praktikatu, benetan eraginkorra izango den laguntza bat lortzeko behar diren aldaketen norabidea. Beste gauza batzuen artean, *elkargoak* berdinen arteko harremana esan nahi duela asumitu beharra, harreman horretan hartzaileek ere, hitz egiteaz gain, entzun eta ikasi ere egin behar dutelarik, laguntzaren emaile eta hartzaileen arteko berdintasunezko partaidetzan oinarrituta burutuko den garapenerako lankidetzaren benetan koordinatuko duten nazioarteko instituzioak eratuz horretarako. Hala lpar nola Hegoko gizarte zibila benetan inplikatzeari eskatzen du, iritzia emateko ez ezik, erabakitzeke ahalmena ere emanek. Herrialde txiroenen zorra barkatzea eskatzen du, alde zuzeneko baldintzen zerrenda luzeak exijitu beharrean laguntza lortu ahal izateko. Pobreei emandako laguntzen eragina maximizatzea ere eskatzen du, erlatiboki hain txirotuak ez diren herrialdeetara zuzendutako programak berrikusiz eta laguntza lotua erabat baztertuz. Baita eskatzen du, azkenez, garapen prozesuan hartzaileari ematea protagonismoa, laguntza hori bertako aurrekontuen osagarritzat eskainiz, herrialde hartzailea bere destinoaren jabe izan dadin.

Espainiako GLO

Garapenerako Laguntza espainiarra beste herrialde batzuetakoa baino askoz oraintsukoagoa da, 1988 eta 1992 bitartean garatzen hasi zelarik nabarmenki; %0,7aren helburua betetzea exijituz 1994an jaiki zen gizarte-mobilizazioak eta

Ruandako krisi humanitarioaren nahiz Mitch urakanaren kasuan populazioak emandako erantzunak ez dute uzten *laguntzaren nekea* argudiotzat erabiltzen Espainiako GLO ez gehitzeko. Halere, gobernuaren nahiz oposizioaren ohiko promesak gorabehera, GLO/BPG koefizientea %0,24 inguruan mantendu da lau-rogeita hamarreko hamarkadan. Eta jaitsi ere ez denez egin, orain GLBaren batez bestekoaren gainetxotik aurkitzen da, baina Nazio Batuek ebatzi zuten helburutik duela hamarkada bat aurkitzen bezain urruti.

Gobernu zentralak aldebiko lankidetza ez itzulgarria (AECI) 1995ean zuzendutako zenbatekoan gehikuntza garrantzitsua gorabehera, zenbateko hori ez tanka-tuta aurkitzen da orduz geroztik eta nabariro ez-nahikoa da. Laguntza espainiarraren ezaugarrietariko bat interes komertzialen nagusitasun lotsagabea da (GLFaren kredituak, laguntza lotua); horri gehitzen bazaio kanpo politikarako osagaitzat erabiltzen dela, ongi uler daiteke Hegoan hain txiro ez diren eta industri dinamismo handiago duten herrialdeetariko batzuk izatea GLO espainiarraren hartzaile pribilegiatuak. Baita GLO horrek herrialde txirotuenei eta oinarritzko gizarte-sektoreei eskaintzen dien arreta urria baino urriagoa, hartutako konpromiso internazionalak gorabehera.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Legea 1998an onartzeak funtsezko hobekuntza ekarri beharko zuen GLO espainiarrean, baina bere alderdi positiboekin batera, gauza asko solte uzten ditu, geroko arau interpretazioaren mende. Alde positiboen artean, Ekonomia Ministerioaren nagusitasunaren aldean Kanpo Arazoetarako Ministerioaren eginkizuna indartzen duela aipatu behar da, hainbat urtetako plangintza bat sartzen duela, eta GGKEen ezagutza juridikoa, sentiberatzea, garapenerako eta bidezko merkataritzarako hezkuntza, subentzioak jasotzeko irabazi asmorik ez izatearen exigentzia eta GLOaren jarduera guztien ebaluaketa sistematikoa barne hartzen dituela. Alde negatiboetan, laguntzaren xedetzat Espainiako ekonomiaren sustapena aipatzea, Lankidetza Batzordearen funtzioen murrizketa, sektore pribatuaren sustapenari buruzko aipamen orokorra, emakidako kredituen arautze nahasia eta sektore lehentasunen hautaketa kaskarra dira aipagarrienak.

Datozen urteetarako funtsezko elementua Lankidetzaren lehen Plan Gidaria dugu, bera delako hainbat urtetarako programazioaz arduratzen dena. Oraingo bertsioa onartuz gero, aurrerapausoa litzateke laguntzaren sektore eta geografi banaketari dagokionean. Halere, GLFen eta AECIren nahitaezko erreformak ez dira egokiro planteatzen.

Lankidetza deszentralizatuaren dinamismoa eta goranzko garrantzia da GLO espainiarraren beste ezaugarri bat. Izan ere, autonomia erkidegoek, diputazioek eta udaletxeek finantzaturiko garapenerako lankidetza haziz etorri da lau-rogeiko hamarkadan zehar, aldebiko GLOaren bostena baino gehiago izateraino. Eta gehienbat GGKEen bitartez bideraturiko laguntza ez itzulgarria denez, goian aipaturiko zenbait joeraren kontrapuntua da, izatez.

Garapenerako lankidetzaz Euskal Autonomia Erkidegoan

Nazioarteko elkartasunaren mugimenduak Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan beste autonomia erkidego batzuetakoan baino garapen handiagoa izan du. Gizarte-kezka honen garrantzia gure eremu geografikoan daudden GGKEen kopuru hazian, lankidetzara zuzendutako *per capita* fondoetan eta egindako gizarte-presioan islatzen da, presio horrek eragin duelarik Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako erakunde publikoak izatea, alde handiz, nazioarteko lankidetzara fondo gehien ematen dutenak. Nazioarteko elkartasun mugimenduaren presentzia gailen hau ulertzeko, euskal gizarteak aspalditik izan duen misio tradizio zabala hartu behar da kontutan, baita Euskal Herrian hirurogeita hamarreko urteetan zehar hain indar handia izan zuten Latinamerikarekin elkartasunezko mugimendu politikoak. Orintsuago, laurogeiko hamarkadaren erdialdetik honantz, EHAetik egin den garapenerako lankidetzak bi egile nagusi izan ditu: GGKEak eta instituzio publikoak, Eusko Jaurlaritza buru dela.

Administrazio publikoaren partaidetza

Eusko Jaurlaritza izan da lankidetzaren eremuan ekimen publikoaren buru. Horrela 1988an, GGKEek bultzaturiko hiritarren mobilizazio kanpaina batzuen ondoren, gobernuak garapenerako lankidetzarekiko laguntza politikari ekin zion; 1990ean Garapenerako Lankidetzaren eta Laguntza Fondoa sortzen da (GLLF/FOCAD), zeinen bidez Foru Diputazioak lankidetzaren politikaren finantza-babesa emateko sartzeari lortzen den. Halaxe eratu zen Autonomia Erkidegoan garapenerako lankidetzaren politikak azken hamarkadan oinarritzat hartu duen aurrekontu euskarria eta babes instituzionala.

GLLF abian jarri ondoren, Eusko Gobernuaren eta Diputazioen nazioarteko lankidetzaren programaren kudeaketa Kanpo Ekintzaren Idazkaritza Nagusian zentralizatzen da. Azken hamar urte hauetan etengabe haziz joan den aurrekontuaren guztizko zenbatekoari esker izan da, hein handi batean, euskal lankidetzak eragile ezberdinen Eusko Jaurlaritzarekiko harremana ezaugarritzat izatea. Bereziki garrantzitsua da GGKEek bere gain hartu duten erantzukizun maila handia GLLF programaren kudeaketan. Fenomeno honek, lankidetzaren zentralizatuan apartekoa ez dena, EHAEan izan du garrantzi berezia, horretarako aurrekontu handiagoak izan direlako.

Euskal administrazio publikoan izan den beste erreferentzia Gasteizko udala izan da. Bere nazioarte lankidetzaren programa, aurrekontu aldetik askoz txikiagoa izan arren, erreferente moral bihurtu zen eta gainerako udalak lankidetzaren politikara bultzatu zituen. Azken urteetan, tokiko erakunde hauen presentzia areago-

tuz joan da eta Euskal Fondoa eratu da, non zenbait dozena udalek euren lankidetza politikak koordinatzen dituzten.

Eusko Jaurlaritzaren politikari dagokionez, GLLF eratu zenetik 1999ra arte, noiz norabide aldaketa gertatzen den, honako hau nabarmendu daiteke:

- Aurrekontua etengabe haziz joan da, nazioarte lankidetzara termino absolutuetan baliabide gehien zuzentzen duen administrazio autonomikoa izateraino. Aurrekontuen gehikuntza hau talde politiko guztien adostasun zabalez lortu da, nahiz eta ez den izan lankidetza politikaren doktrinari eta estrategiari buruzko definiziorik, GGKEek proposatutako ekintzak kofinantatzeko leihatila bat irekitzeaz gain.
- Fondoetara iristeko mekanismo bakarra, berriz, urteroko deialdi publiko batera 2 urtetako gehienezko iraupena duten proiektu bereziak aurkeztea izan da. Proiektu horien hautaketa arbitrarietatez josita egon da, finantzatzeko proiektuen hautaketarako erabili diren irizpide eta mekanismoei buruz gardentasun falta handia nabari izan delarik.

Gardentasunik ezak susmo hau ekarri du, erakunde publiko baten prozedura izan beharko lukeenari gutxi dagozkion praktikak estali nahi zirela, alegia: harreman pertsonalei irizpide teknikoek gainetikoa lehenetsia ematea, azaldu gabeko irizpide politikoak, konkurrentzialtasun askearen printzipioa distorsionatzen duten finantzaketa akordio pribatuak, ekipoen esportazioarekin zerikusia zuten proiektuetan doitasunik eza, lankidetza zuzendaritzari interesatzen zitzaizkion proiektuen aurkezpenerako organizazioen sorrera bultzatzea, etab. Jakina, honelako praktikak ez ziren izan soilik administrazio publikoaren erantzukizuna, baizik beste eragile batzuen adostasunez eta konplizitatez burutu ziren, funtzionamendu mota horrek abantailaren bat zekarkien GGKE batzuk ere bazirelarik eragileon artean.

- Denen kontentamendua, erakundeek kuota inplizitua eta halako banaketa politiken arabera barreiatzea laguntzak GGKEen artean. Irizpide arbitrarioen arabera egindako banaketa politikak GGKEen mugimendua kontrolpean edukitzea nahi zuen. Kontrolaren asmo hori agerian geratu zen, baita, GGKEen koordinakunde alternatibo bat sortzeko egin zuten ahaleginean.
- Ez zaio behar bezalako irtenbiderik eman lankidetza programetan beste gizarte-eragile batzuek parte hartzeari. Azken urteotan deialdi publikoetan beste eragile batzuk sartzea ez da etorri eragileon eginkizuna eta inplikatu guztiak asebetetzeko administrazio mekanismoak adosteko aurretiazko lan batetik.
- Ez da ezarri politika aktiborik garapenerako heziketa eta gizarte-sentibertasuna sustatzeko. Zentzu horretan, ez da diseinatu administrazio bitarteko

berezirik hezkuntza proiektuetarako. Honetan, administrazio publikoaren eta gainerako eragileen artean banatu behar da erantzukizuna.

- Lankidetzaren arloan gazteak inplikatzeko ahalegina egin da: Euskal Gazteria Lankidea, Nazio Batuetarako Bekak, lankideentzako fondoak, etab. Halere, ez da aurrerapauso nahikorik eman modalitate ezberdinak jaso ahal izateko lankide eta bolondresentzako programa baten definizioan. Era berean, borondatezko lankidetzaren errealitate hori ez da lotu administrazio publikoko beste sektore batzuekin, lankide bolondresen lanak gizarte-ezagutza jaso dezan.
- GLLFaren programaren segimenduan akats larriak gertatu dira, ebaluazio ezak areagotuak.

Hortaz, 1999an aldaketa bat egon da Eusko Jaurlaritzaren Lankidetza Zuzendaritzan, administrazio publikoak kooperazio politikan estilo berri bat bultzatzeko duen borondatearen ondorioz. Nahiz eta oraindik goiz den etapa berri honen emaitzak ebaluatu ahal izateko, aldaketa esanguratsuak nabari dira hala lan egiteko tankeran nola EHAetik burutzen den lankidetzari heldutasuna emateko lagungarri izan daitezkeen mekanismoak ezartzeko borondatean. Guztion erantzukizuna da, hala administrazioarena nola lankidetzako gizarte-mugimenduen, egiten dugun zerbitzua hobe dezaketen ikuspegieta eta jokatzen dituzten beharrezko aldaketak sartzea.

GGKEen partaidetza

GGKEen mugimendua ugaria, dinamikoa eta anitza da EHAEan. Estatu mailan ezarpen zabala duten GGKEei autonomia mailako edo tokiko jardun-esparrua duten erakunde multzo garrantzitsu bat gehitu behar zaie. Eusko Gobernuak bere lankidetza programa abian jarri aurretik ere lanean ziharduten. GGKEek gizarteari begira egin duten lana oso garrantzitsua izan da azken urteetan zehar, bai munduko herrialde txirotuen egoera ezagutzera emateko, baita mundu justuagoa eraikitzeak eskatzen duen erronka planteatzeko. Lan horren ezaugarri da erakundeok duten gizarte-aintzatespena. Bestalde, GGKE euskaldun batzuek ospe ona dute Estatu eta nazioarteko testuinguruan, lankidetzaren alor ezberdinetan -proiektuak, hezkuntza, sentiberatze lana, bolondresen sustapena, etab.- egiten duten lan egokiagatik. Lan eta dedikazio ibilbide oso batek kanpotik jasotzen duen aintzatespena da.

GGKEen gizarte-ezarpena oso irregularra da. Batzuek gizarte-ingurune baten babesa dute atzean, dela borondatezko lanarekin, dela finantzaketa ekarpenekin, edo gauza biek batera; beste erakunde batzuk, ordea, batere edukirik gabeko egitura juridikoak dira. Modu xume batez irisgarri diren aurrekontu

publikoak sortzeak inolako egitura eraginkorrik gabe eta gutxienezko zehazpenik ere ez duten lankidetza irizpiderik gabeko GGKEak plazaratzea ekarri du subentzio publiko horien babesera. Erakunde berriak sortzea gizarte-ehuna garatzeko xede desiragarria zitekeen arren hasiera batean, laguntza barreiatzeko Eusko Gobernuaren estrategia hori gizarte-mugimenduaren kontrol tresna bilakatzeraino iritsi zen, mugimendu horren garapena eta mintzaidetasun ahalmena galgatzeko asmoz. Eusko Jaurlaritzaren Lankidetza Zuzendaritzak nahiago izan zuen ahalmen eragile eta proposamen alternatibodun erakunde multzoarekin baino indar gutxiko eta hein handi batean “beren” proiektuen onespeneraren mendeko erakunde multzo nabar baten mintzaide izatea.

Oraindik GGKEen artean, oro har, burutzen den lankidetza hobetzeko proposamenak eta gogoeta egiteko ahalmen gutxi dago. GGKEek burutzen duten lankidetzaren imajinarioa proiektuak gauzatzeko bitartekari finantzarioaren eginkizuna hartzea izan ohi da.

Lorpen nagusiak eta jarduketa proposamenak

Abiapuntu garrantzitsua da, berez, kontinente ezberdinetako herri eta komunitate ugariarekin afektuzko hurbiltasun harremanak dituen gizarte sentibera. Azken urte hauetan jende askok, batik bat gazteek, nolabaiteko kontakturen bat izan dute lankidetzaren munduarekin, Hegoan izandako zuzeneko esperientzia eta guzti, kasu askotan. Horrek, jakina, lankidetzari ematen zaion gizarte-babesaren osagai nagusia berrelikatu egiten dela esan nahi du.

Hona hemen beste lorpen handi bat: gizartea mobilizatzeko gai diren eta bere zerbitzua hobetzeko gogoia duten gobernu kanpoko erakundeek gizarte-ehun bat daukagula. Lankidetzaren eragileen prestakuntzarako inbertsioek eta erakundeetan izandako esperientzien metaketak, berriz, etorkizunean GGKEek eta administrazio publikoek lankidetzaren kalitatea hobetu eta erronka berriei aurre egin diezaieten oinarriak jartzen dituzte. Zentzu honetan guztiz premiazkoa da administrazio publikoek euskal lankidetzaren eragile ezberdinen egintza kokatzeko doktrina, estrategia eta lege marko bat zehaztea, baita administrazio inplikatu guztien arteko koordinaketa eraginkorra bermatuko duten mekanismoak martxan jartzea.

Aurrerapauso garrantzitsua izan da, halaber, aurrekontu konpromisoetan konkretatzen den lankidetza politika publiko baten beharrezana finkatzea kultura politikoaren eta gizarte-sarearen barnean. Halere, Euskadiko Lankidetza Batzordeak, Administrazioaren eta gizarte-sektoreen topagune eginkizunarekin sortu izanak eragin zituen itxaropenak gorabehera, ez du lortu eragile konprometitu guztien arteko benetako erreferentzi topagune izatea. Horretarako nahi-

taezkoa da lankidetza programen kudeaketan aditua den aski pertsonalez osatutako egituraz horni dadin.

Beste alde batetik, GGKEek mintzaidetza eraikiorra izan behar dute administrazio publikoarekin. Gainera, lankidetza tresna bakar gisatzat jotzen den “proiektuaren” eskema gaindituko duten egiazko alternatibei eman behar diete bide, hala nola euren jakintza, trebetasun eta esperientziak ekar ditzaketen beste gizarte-eragile batzuk inplikatu lankidetza munduan, eta lankidetzaren arloari hertsiki dagozkionak baino politika proposamen zabalagoak formulatu. Horrek zera eskatzen du, GGKE koordinakundeek topagune eta gogoeta kolektibo gisa duten eginkizunari indar berria ematea.

2. Garapenerako lankidetzaren helburu eta estrategia berriak



Mundu ekonomiak izan dituen aldaketa sakonek eszenatoki berrien aurrean garapen posible eta desiragarriari buruzko gogoeta egin beharra ekarri dute, eta garapenaz aurretik zeuden postulatu asko berrikusi dira. Garapenaren kontzeptua bera ere eztabaidagai bihurtu da. Dimentsio ekonomikoa erabakiortzat zuten premisetatik, horixe izan baita ikuspegi hegemonikoa azken hamarkadetan zehar, dimentsio politiko eta etikoak ere kontutan hartzeko bidea irekiz joan da, eta horrek ikuskera tradizionalaren alternatibak proposatzea ekarri du, giza garapenaren paradigma, kasu.

Garapenerako lankidetzak, kontzeptu gisa eta politiken multzo gisa, testuinguru jakin batean sortutako eraikuntza historiko baten emaitza izan da eta, beraz, normala da errealitate berrietara egokitu beharra. Hortaz, garapenerako lankidetzaren edukia eta alkantzua ere eztabaidagai bihurtu da nazioarteko eszenatokian gertatutako aldaketen aurrean. Ez da auzitan jartzen garapenerako lankidetzak bere proposamenak doitu eta egokitu beharra, baina horrek ez du esan nahi doikuntza horren forma eta edukia buruz instituzio emaileek aurkezten dituzten orientabideen arabera markatuta dagoela jarraitu beharreko bidea.

Jarduteko eskakizuntzat elkartasun dimentsioa, garapenaren lehentasunezko xedetzat ekitatea eta harremanak egiteko oinarritzat partehartzea abiaburu dituen garapenerako lankidetzaren kontzeptu baten ikuspegitik, bi gai dira ardatz: lehenik, garapen ereduak, orain arte aplikatu den eran, ez dituela errespetatu herrialde pobreetako jendartearen balioak eta euren kultura eta premien arabera askatasun osoz erabakitako erritmo, lehentasun eta prozesuak hautatzeko eskubidea. Egungo merkatu globalen funtzionamenduan ez da existitzen ekonomia jarduerak orok bilatu behar dituen helburuak -giza premiak asebetetzeko erarik onena eta eraginkorra, kasu- bermatzeko ezinbestekoak diren instituzio formalik ez informalik.

Bigarrenik, teknologia berriek herrialdeen eta gizabanakoen interdependentzia hazkorra ezaugarritzat duen nazioarteko jokazelaia eskaintzen dutela aitortzeak ez du esan nahi globalizazio modu jakin bat itsu-itsuan onartzea. Aitzitik, garapenerako lankidetzak globalizazio izan daitekeen eta izan behar duenaren beste ideia edo ikuskera bat planteatzen du, hots, partehartzean eta berdintasunean oinarritutako herrien harremana ahalbidetzen duen globalizazioa.

Goiko printzipio horien arabera, gaur egun nagusi diren planteamenduekiko ikuspuntu alternatiboa hiru ardatz handiren inguruan eraikiko da:

- Merkatu irizpideen arabera zuzenduriko globalizazioaren aurrez aurre, jarduera ekonomikoak bere funtzio nagusia -hots, pertsonak pertsona gisa garatzea ahalbidetzen duten baliabide nahikoa eta baliabideotara irispidea- betetzen duela bermatuko duten balioak sustatu eta instituzioak eraiki beharra.
- Bizirauteko minimoen gainditze gisa planteatzen den pobrezia-aren murrizketaren helburu hertsien aurrez aurre, pertsonen euren gaitasunak garatzeko aukera bermatuko dien ongizatearen kontzeptu zabala proposatzea.
- Bai helburuak baita horiek lortzeko bitartekoak goitik behera ezartzen dituen globalizazio uniformatzailearen aurrez aurre, pertsonak, erakundeak eta gizarteak beren politiken diseinuan eta beren lehentasunen ebazpenean parte hartzea azpimarratzea.

Ekitatea eta ongizatea: pobrezia-aren aurkako estrategiaren oinarriak

Pobreziak bere horretan irautea, edo beharbada areagotzea, herri guztien garapena lortzeko ahaleginen oztopo nagusi bihurtu da. Pobrezia erauztearen helburua alde askotako erakundeek eta gobernuak formulatzen dituzten garapenerako lankidetzak politiken erdiguneko egitekotzat hartzen da. Halere, pobrezia kontzeptu horren atzean eduki oso desberdinak bil daitezkeenez, ez da aski garapenerako lankidetzak pobrezia murriztearen helburu estrategikoa duela baiezte, baizik zehaztu beharra dago pobrezia-aren zein kontzeptutik abiatzen den.

Pobrezia ezin da jo herrialde batzuen problematzat, baizik eta planetari bere osotasunean ukitzen dion arazotzat hartu behar da. Interdependentzia haziz doan garai honetan, ezin gara geratu munduko biztanleriaren proportzio handi bat gizakiei ez dagokien egoera ez-duinean bizi izatearen egitate lazgarriari albotik pasiboki begira.

Mundu mailan azken hamarkadetan gertatu den ekonomi hazkunde itzelak ez du eragin bera izan munduko lurralde guztietan, eta ez du balio izan pobrezia eta desberdintasuna herrialde askotan behar bezalako neurriz gutxitzeko. Ukaezina da osasuna, elikapena eta hezkuntzaren arlo jakin batzuetan gertatu den aurrerakada populazioaren sektore zabaletan, baina pobrezia-aren egungo hedadurak, aldi berean, egoera horren iraunkortasuna jasanezinago bihurtzen duen kontrastea nabari du. Pobrezia herrialde guztietan ageri da, baina zenbait herrialdetan modu bereziki dramatiko, populazio gehienari ukitzen diolako, eta horrek sakonki eragozten ditu garapenerantzko bidetik abiatu ahal izateko aukerak.

Pobrezia-aren kontzeptua definitzean eta errealitate horren alkantzua zehaztean, pertsonak txiro bezala definitzen dituzten osagaiak zeintzuk diren mugatzean, ez datoz denak bat. Pobrezia ulertzeko maila ezberdinak daude, ikuspegi teoriko

eta exigentzia etiko ezberdinen arabera. Bi ikuspegi nagusi bereiz daitezke: lehenengoak asebate gabeko premietatik definitzen du pobrezia; bigarrenak, aldiz, premia horiek asebatetzeko ahalmenaren ikuspegitik. Lehen kontzeptuaren arabera, txiroa bere oinarritzko premiak erregularoki asetzea lortzen ez duena izango da; bigarrenaren arabera, bere asebatetze bitartekoak sortzeko gaitasuna edo posibilitatea ez duena. Bi definizioek pobrezia ezaugarri berei erantzuten diete, biziraupenerako minimoekin identifikatzen dutelarik txirotasuna. Ikuspegi hauxe izan da nagusi, eta oraindik ere bada, nazioarteko instituzio eta gobernu emaileetan pobrezia kontrako politikak diseinatzerakoan.

Halere, pobrezia alderdi anitzeko izaera duenez, ezin da egokiro ulertu gizabanakoek pertsona gisa garatzeko behar dituzten orotariko baliabideetara iristea zailtzen edo ezinezko bihurtzen duten faktoreak kontutan hartu gabe, goian aipaturiko gabeziez gain. Horren arabera, pobrezia murrizteko estrategiak nahitaez planteatu behar du, ez soilik pobrezia horren azken agerpenak konpontzea -janari, hezkuntza edo osasun gabeziaren egoerak, besteak beste-, baizik eta gizabanakoei mekanismoak eta ahalbideak eskaintzea halako egoeretara itzul ez daitezen.

Gure proposamena hauxe da, ikuspegi anitz horretatik ulerturiko pobrezia erazketa erdiguneko xedetzat duen garapenerako lankidetzaren estrategia bat landu behar dela, nahiz eta txiroek jasaten dituzten berehalako premiei erantzun beharra eta premiok eragiten dituzten kausak zuzendu beharra ere egongo den aldi berean. Pobrezia kausak ulertzeak mekanismo ekonomikoen funtzionamendua eta honek pobrezia prozesuekin duen lotura ezagutarazi beharra eskatzen du. Kezka honetatik abiatuta, lankidetzaren estrategia honako puntuok izan beharko ditu kontutan:

- a) nazioarteko interdependentzia ekonomiko hazkorra osatzen duten prozesuak, pobrezia iraunaraztea eta desberdintasuna areagotzea ondorioztat dakartelarik, hala nola jokazelai berri horrek eskaintzen dituen ahalbideak pobrezia mailaz mailako erazketa eta banaketa bidezkoa xedetzat dituen estrategia global bat landu ahal izateko;
- b) egoera bereziak kontutan hartu eta haien baliabide eta premiei erantzun-eko dien nazio estrategia lantzea aurreko markoaren barruan, horixe baita pobrezia erazteko helburuari epe ertain eta luzera aurre egin ahal izateko tresna bakarra;
- c) gizarte eta ekonomi politikak batera lantzea, bien arteko bereizketa tradizionala hautsi eta gizarte-garapeneraren xedeak ekonomi ereduaren osagai izan daitezen.

Nazio ekonomien liberalizazioan eta ekonomia horiek mundu ekonomian gero eta gehiago integratzean oinarrituta dagoen nazioarteko ekonomi harremanen egungo garapenak ondorio ezberdinak ditu herrialdeen arabera. Ekonomi hazkunde orokorrak eskain ditzakeen alde onak eta horren potentzialtasunak ukatu

gabe, honako hau nabarmendu behar da: egiten den moduan eginda, hazkunde horren ezaugarri nagusietariko bat desberdintasunaren areagotze azeleratua dela, hala herrialde beraren barnekoa nola herrialdeen artekoa, herrien eta pertsonen garapenerako ondorio txit larriekin. Desberdintasunak ez duenez izan behar globalizazioaren berezko ondorio, pobrezia erazteko estrategia batek aurrez erabaki beharra dauka zeintzuk politikek ahalbidetuko dieten txiroei ongizatearen eta aberastasunaren sorkuntzan modu ekitatiboagoz parte hartzea.

Partaidetza eta hiritartasun unibertsala

Hasieran aipatzen zenez, gaur egun gero eta jende gehiagok onartzen du garapena ezin dela hazkunde ekonomiko soilaren berdinkidetzat hartu; hazkunde hori beharrezko baldintza da, baina ez bere hartan nahikoa, benetako garapen prozesu bat ondorioztatu dadin. Garapenaren kontzeptua bilakatuz joan da azken urteotan, ekonomi arloko ohiko osagaiez gain, gizarte eta kultura arloko osagaiak eta giza eskubideei, genero parekotasuna lortzeko nahiz ingurumenari dagozkion erreferentziak ere barne sartu direlarik.

Bilakaera honen zedarrak garrantzitsu bat, bada, garapena egiazko giza eskubidetzat jotzean datza, pertsona ororen eta herri ororen eskubidetzat, alegia. Horrek zera dakar, garapena karitate edo sorospen gisa ulertzetik (garapenerako laguntza, horren arabera, herri industrializatuen borondate onaren mende legoke) garapena giza eskubideen teoriaren barne sartzen duen pentsaerara igarotzea. Horrela, planetan bizi diren pertsona guztiak beren duintasunerako ezinbesteko dituzten ondasun eta zerbitzuen jasotzaile egiten dituen egiazko *hiritartasun unibertsala* gogoan hartzea igarotzen da.

Nazio Batuek 1986an bere egin zuten *Garapen Eskubideari buruzko deklarazioan* honako hau xedatzen da: “garapen eskubidea berez-berezko giza eskubidea da eta, horregatik, gizaki ororen eta herri ororen eskumena da giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiak bere osotasunean gauzatu ahal izateko ekonomi, gizarte eta kultur garapenean parte hartzea, garapen hori bultzatzea eta hartaz gozatzea”. Deklarazioak honela definitzen du garapena: “Populazio osoaren eta gizabanako ororen etengabeko ongizatea hobetzea xedetzat duen ekonomi, gizarte, kultur eta politika prozesu globala, non beraiek hala garapenean nola hortik eratorritako etekinen bidezko banaketan eskuhartze aktibo, aske eta esanguratsua izango duten”. Beraz, hiritar guztien ongizatea hobetzea, beraiek garapen prozesuan parte hartzea edota aberastasunaren bidezko banaketa, besteak beste, garapenaren kontzeptu berri honen barruan sartzen dira.

Garapen eskubideak ondoko osagai hauek hartzen ditu barne:

- Lotura argi eta estu bat garapenaren eta *giza eskubide guztien errespetuaren* artean. Garapenaren sustapena ezin da inoiz deslotu giza eskubide

guztien -hala eskubide zibil eta politikoen nola ekonomi, gizarte eta kultura eskubideen- egiazko begirunetik.

- *Pertsona hartuko da “garapenaren subjektu nagusitzat* eta bera izan behar da garapen eskubidearen partaide aktiboa eta onuraduna” (Deklarazioaren 2.1 art.). Hor aitortzen da, beraz, garapen prozesu orok emakumeak eta gizonak hartu behar dituela azken xedetzat, eta eurek prozesu horretan parte hartzea. Hortaz, *giza garapenerantz* jo behar da, hau da, pertsonen oinarritzko gaitasunen garapenari lehentasuna ematen diona hezkuntza, osasuna, etxebizitza, giza eskubideen babesa eta horrelako arloetan.
- *Estatuen betebeharra garapenari laguntza emateko* eta Nazioarteko Ekonomi Ordenu Berria ezartzeko. Garapenerako lankidetzak, EHAeko GGKE Koordinakundearen Lankidetz Solidarioaren aldeko Agiriak dioenez, “miseria eta sufrimenduaren eragile diren injustizia, desberdintasun eta gatazka egoerak eraldatzen lagundu behar du”. Lankidetzak ez du mugatu behar Iparretik Hegora fondoak transmititze hutsera, baizik azpi-garapena sorrarazten duten egiturak, barne nahiz nazioarte egiturak, aldatzeko oinarriak ere jarri behar ditu.
- *Desarmea*, nazio mailakoa eta nazioartekoa, horra hor garapen eskubidea burutzeko beste baldintza ezinbesteko bat, “garapen globalerako askaturiko baliabideak erabiliz, batez ere garapen bidean diren herrialdeetan” (7. artikulua).
- *Herriaren partehartzea* ere funtsezkoa da, neurri berean, garapen eskubidea eraginkorki buru dadin. Deklarazioak bere 8.2 artikuluan planteatzen duenez, “Estatuek herriaren partehartzea bultzatu behar dute esparru guztietan, garapenerako eta giza eskubideen burutzapen osorako faktore garrantzitsu gisa”. Horrek esan nahi pertsonak eta herriak direla beren garapenaren egiazko protagonistak, beraiek ebatziz euren lehentasunak, erritmoak, kultura ezaugarriak eta abar. Hortik zeregin garrantzitsu bat datorkie GGKEei, hots, hartzailleak garapen proiektuen fase guztietan sar daitezela lortzea, euren eskarietara egokituz proiektuok eta garapenari buruzko ikuspegiak. Ez da soilik eraginkortasunagatik edota errealtaterara hobeto egokitzeagatik, baizik baita partehartzeko duten eskubidea errespetatzeagatik. Bestalde, Hegoan partehartze prozesuak bultzatzeko xedea duten proiektuei eman beharko zaie laguntza.
- *Emakumeen partehartzea* garapen prozesuetan. Emakumeek edozein garapen prozesutan izan ahal eta behar duten eginkizuna infrabalaratu eta gutxietsi egin da, hein handi batean. Deklarazioaren 8. artikulua dio “neurri eraginkorrek hartu behar direla emakumeak garapen prozesuan eraginkorki parte har dezan”. Gainera, garapenaren helburuetariko bat genero parekotasuna lortzea baldin bada, genero ikuspegia garapen prozesu orori dagokio.

- Azkenez, *inguramena* garapenaren funtsezko osagai bihurtu da. Ikuspuntu honetatik begiratuta, oraingo premiak asebetetzeagatik geroko belaunaldien ahalbideak arriskutan jartzen ez dituen garapen eredua da bultzatu behar duguna.

Garapenaren kontzeptuak *giza garapenerantz* jotzen du gero eta gehiago, hots, pertsonen gaitasuna nahiz autonomiari eta haien aukeren egikaritzari bide zabalagoa emango dien garapena, inolako diskriminaziorik gabe. Garapen horrexen alde jokatu behar dute GGKEek, bide horretatik doan lankidetzara egokituz baliabideak nahiz proiektuak, eta gizateria gero eta zabalagoaren bazterketa, marjinazioa eta ikusezintasuna sortzen duen nazioarteko sistema auzitan jartzen lagunduko duten kideak izanez.

Planteamendu horiek GGKEen jarduera gidatuko duten irizpideak izan daitezen, erakundeok honako konpromiso hauek hartu beharko dituzte:

- Euren kideen artean gogoeta, eztabaida eta prestakuntza gune bat eratzeko baldintzak sortzea, errealitate berrien aurrean etengabe egokitzen eta injustizia berriei erantzun egokiena ematen jakiteko.
- Planteamendu horiek euren erakundeen estrategia eta planak lantzerakoan eraginkorki sartzea, finkatzen diren helburuek aipatutako lehentasunei egiaz erantzun diezaieten.
- Praktikatzan diren lankidetzak bitartekoen, beste erakundekide batzuekin diren harremanen, lan handiagoa dedikatzen zaien sektoreen, etab, berrikuspen sakon bat egitea, jarduera erabakiorki bidera dadin giza garapenaren ildorantz.
- Hegoko mugimenduei ere laguntzea subjektu kolektiboaz eta euren etorkizunaren protagonista izan beharraz jabearazten.
- Gure gizarteetan jarrera eta balio aldaketa bultzatzeko eginkizunari, hala nola aipatutako helburuak lor daitezen agintarien aurrean presio eragileak izateari lehentasuna ematea GGKEetan.
- Bai GGKEen artean baita beste gizarte-eragile batzuekin batera ekintza estrategiak planteatzea, ahalik eta plataforma bateratsu eta zabalenen bidez baino ez dagoela aurrera egiterik jakinik ekitate eta elkartasun handiagoko gizartera eramango duten aldaketa bideetatik; puntu honen barruan, GGKEen Koordinakundea indartzea helburu nagusitzat hartu behar delakoan gaude.
- Informazio eta komunikazio teknologia berriez baliatzea nazioarteko beste mugimendu eta erakunde batzuekin sarean lan egiteko, arazo globalei erantzun solidarioak ematen eraginkorrakoak izan gaitezen.

3. GGKEen barne dinamikak



Nazioarteko elkartasun mugimenduak garatze esanguratsua izan du Euskal Herrian, berau delarik espainiar Estatuaren barruan GGKEen ezarpen garrantzitsua duen eta instituzioek lankidetzarako fondo gehien ematen duten autonomia erki-degoetariko bat. Garatze hori gizarte-mugimenduen dinamismoarekin batera etorri da, batez ere %0,7aren errebindikazioarekin, nahiz eta azken hamarkada honetan moteltze bat nabari den GGKE berriak sortzeari dagokionez, erakundeon jarduera-eremu geografikoan izandako aldaketekin (autonomiako edo tokiko izatera areagotuz) eta euren funtzionamenduan nolabait finkatzearekin batera.

Oro har, GGKEen mugimenduak batetik aniztasuna eta bestetik gehiegizko zati-keta ditu ezaugarritzat, mugimendu horren barnean antolamendu eredu, motibazio eta funtzionamendu dinamika ezberdinak daudelarik aldi berean. Azken urteetan, GGKEek beren ekintzak eta funtzionamendua autoerregulatzeko Portaera Kode ezberdinak jarri dira praktikan. Kode horrek dio GGKEen ezaugarriak honako hauek direla batik bat: borondatez jardutea, gizartea aldatzen saiatzea, pertsonetan zentratzen den garapenaren ikuspegia izatea, antolaketa independentzia izatea eta irabazi asmorik ez izatea.

Formulazio orokor hauez gain, GGKEek beren eginkizunaren eta helburuen definizio argi eta eguneratua zehazteko eta antolamenduaren alderdi guztiak barne hartuko dituen plangintza estrategikoa burutzeko aurrerapausoak eman behar dituzte, giza garapenaren alde lan egiteko premia, gizarte-sektore zokoratuen borroka ezberdinak bateratzeko eta beren nortasun kolektiboa birpolitizatzekeo premia kontutan hartuz, baliabideen kudeatzaile huts bihurtu ez daitezkeen eta gizarte-aldaketa susta dezaten.

Antolakuntza ereduak eta barne dinamikak

GGKEek bi formula juridiko har dezakete -fundazioa eta elkargoa-, egitura organiko formal diferenteeekin; baina eredu batakin zein besteak barne erregulazio eta jardun-dinamika oso ezberdinak sor ditzake. Hautatzen den antolakuntza ereduak batik bat dimentsio funtzionala duela ikusten da, GGKEak aukeratzen duen egitura bere helburuekin koherentea izatea delarik garrantzitsuena.

Erakunde horiek zuzentzeko modua ere ezberdina da. GGKE batzuek enpresa kudeaketa moldeak islatzen dute -non efikazia eta eraginkortasunaren izenean erakundeak desitxuratzen eta oinarri sozialetik deslotzen den-, eta beste batzuek, ordea,

mesfidantzaz ikusten dituzte enpresa kudeaketako planteamenduak eta, gutxi profesionalizatuak izan ohi den borondatezko ekintzan besterik ez direnez oinarritzen, sarri askotan eraginkortasun gutxi izaten dute beren helburuak lortzeko. Zuzendaritza mota ere ezberdina izan ohi da, zenbait kasutan soil-soilik bolondresez osatua eta beste kasu batzuetan bolondresez gehi pertsonal kontratatuz.

GGKEek beren eginkizuna bete ahal izateko, barne koherentzia sendoagoa behar dute eta, aldi berean, kanpotiko laguntza handiago eta konprometituagoa lortu. Konkretuki, GGKEak honako erronka hauek dituzte esparru honetan:

- Gizarte-mugimendutik sortutako erakundeak direnez, beren ordezkartasunaren eta gizarte-babesaren kalitatea hedatu behar dute, zeren gizarte-oinarri urria eta konpromiso gutxikoa baita haien ahultasun nagusienetarikoa bat. Hortaz, haien indarretariko bat gizarteak oraindik ematen dien fedean datzala gogoan izanik, GGKEek gizarte-oinarri tinkoa eta partehartzailea eratu beharko lukete, gardentasuna eta prestakuntzaren bidez eta planteamendu argi eta zehatzak medio, gizartean konfiantza sortuz.
- Lanaren plangintza egitean, GGKEek erakundean parte hartzen duten eragile guztien (bolondresak, profesionalak, pertsonal erkidetua, zuzendariak eta lankideak) integrazio prozesuei eskaini behar die arreta, baita horien prestakuntza ideologiko eta teknikoaren eskakizunei.
- GGKEek erakunde eredu tinkoa eta bolondresen eta pertsonal kontratatua-
ren lana eraginkorki konbinatzea ahalbidetuko duen elkarte kultura izan behar dute.
- Haien jardun-kudeaketari dagokionez, honako hauek dira giltzarri: profesionalizazioa eta kudeaketaren etengabeko hobekuntza, aliantzak, erakunde ezberdinen arteko lankidetzak eta koordinazio ekintzak, hala nola populazio txirotuenen pobrezia eta babesik ezaren kausen aurka lehentasuneko eta etengabeko eskuhartzea.
- GGKEek autokritikoak izan behar dute eta, nazioarte mailan gertatzen diren aldaketa politiko, sozial eta ekonomikoez jabetuta, gogoeta nahiz malgutasun ahalmen aski erakutsi behar dute ekitate eta justizi eskakizunei erantzun ahal izateko, aldi berean gizarte-mugimendu gisa dagokien eginkizuna betetzen dutelarik.

Bolondresak eta profesionalizazioa

GGKEetako egungo bolondresen ezaugarriak deskribatzeko era bat gizarte-mugimendu gatazkatsuenak (abertzale radikalak, brigadista internazionalak, intsumisoak, ekologistak, okupak, etab.) osatu dituen edoosatzen dituen jendearen pro-

filekin alderaketa egitea da, hala haien motibazioei nola jarrera kolektiboei dagokienean.

Horrela, gizarte-mugimendu batera sartzeko erabakia esperientzia solidarioen aurretiazko sare txit ideologizatueta oinarritzen den bitartean -hortik mugimenduak diskurtso oso artikulatua eraikitzea jotzea-, GGKEetako bolondresen kasuan urriak izan ohi dira alde aurreko esperientzia solidarioak, munduikuskera politiko/sozialak baino norberaren egonezinak nagusitzen direlarik, eta hortik talde honek diskurtso moderatuki kritikoa adieraztea.

Bestalde, askotarikoak eta anitzak izaten dira talde batean sartzera bultzatzen duten motibazioak, hasi helburu pertsonaletatik (norberaren errealizazio eta aintzatespen gogoia, astia egokiro erabili nahi izatea, merezi duen zerbait egitea) eta erakundearen irudi erakargariraino, elkartasunezko konpromisora bultzatzen duten sineste humanitario, filosofiko eta erlijiosoetatik igaroz (kontzientzia politikoa, herritar gisako erantzukizuna, justizia bilatzea edota proiektu ideologiko jakin bat). Bada, gizarte-mugimenduen kasuan badirudi motibazio nagusienak zerrendaren azken lekuetan ageri direnak izan ohi direla, eta GGKEetan, aldiz, anitzagoak dira eta motibo pertsonalek nahiz sineste sistema ez ideologikoek dute lehentasuna.

Beste bi ezaugarri ere bereizten ditu GGKEak eta gizarte-mugimenduak:

- a) Identitate kolektiboa ez da zenbait gizarte-mugimendutan nabari dena bezain trinkoa (gizabanakoaren bizitza osoa barnehartzen duena), adierazkorra (berezitasuna nabarmentzeko kanpora begirako zeinu eta jarrerekin) edo eskusiboa (itxia).
- b) Arriskuari dagokionez, gizarte-mugimendu bat arriskuak asumitzeko borondate erabakitsuen gauzatze kolektiboa da; gizarte-mugimendu batean parte hartzeak beste instituzio batzuetan nekez aurkitu ahal den alderdi sortzaileria du. Ostera, GGKEak neurri handi batean eguneroko ohitura kolektiboei oinarrituta sortzen dira hasieratik bertatik, arrisku marjina txikia gertatzen delarik identitatearen edo estrategiaren diseinuari dagokionez.

Halere, bada antzekotasunik ere GGKEen eta gizarte-mugimenduen artean, besteak beste, parte hartzeko borondatea (azken hauetan bezain intentsua ez izan arren lehenengo haietan), erabakitze gogoia eta hierarkien nahiz profesionalizazioen aurrean halako errezelo bat.

Labur esanda, handia da nazioarteko lankidetzaren mugimenduan lan egiteko gogoia duten bolondresen harrobia. GGKEen erronka da bolondres jende horiek non eta nola kokatu erabakitze gogoa egitea, beren hezkuntza eta sentiberatze eginkizuna berrartuz, kolektibo sozialen solidaritatea maximizatuz eta beste eragile batzuk inplikatzuz lankidetzaren zereginetan.

Bolondresen eta berauek GGKEetan duten eginkizunaren gaiarekin lotuta, oso eztabaidatsua den beste gai bat azaldu da azken urteotan: profesionalizazioa. Gai hori aztertzerakoan, bi joera hauek bereizi beharra dago:

- Motibazio profil alternatibo urriaren ondoriozko profesionalizazioa, hots, GGKEan borondatez dagoen jendeak ez duelako uste merkataritza lanaz bestelakorik egiten dagoenik edota ez duelako nahi ere bestelakorik egitea.

Bolondres mota honentzat GGKEan egotea bere eguneroko arazoak konpontzeko modu bat da eta, “ona” den zerbait egiten dabiltzala uste duten arren, ez dute uste, ordea, gauzak era diferentez egite hori errealtatea aldatzeko modu bat ere badela (partehartzeko borondate kamutsa dute). Profesionalizazioa, beraz, merkataritza lanean egin ohi den gauza bera egiten dutela uste izatearen -edota gauza bera egin behar dutela pentsatzearen- ondorio logikoa da kasu honetan.

- Bada ordea premiazko profesionalizazio bat ere, aurrekoarekin nahastu behar ez dena: lankidetzaren eskakizun gero eta konplexuagoetatik sortzen dena. Era honetako profesionalizazioak ez ditu ukatzen inola ere parte hartzearen eskakizunak.

Barne prestakuntza, hala teknikoa nola “ideologikoa”, gero eta garrantzi handiagoa hartuz doa GGKEetan. Erakundeon gidaritzan daudenak jabetu dira, nonbait, lankidetzan dihardutenek eurek ez badute ezagutzen beren GGKEaren ekintzarekin aldatu nahi duten mundua nolakoa den, ideal batek eskatzen duen dedikazioarekin lan egiteko gai ez izateaz gain, desmotibatuta sentituko direla eta erakundea utzi egingo dutela azkenean. GGKEentzat biziraupen gako bihurtu da, beraz, heziketa.

GGKEen finantzaketa

GGKE gehienek bilatzen dituzte fondo publikoak beren jarduerak finantzatzeko instituzioek egiten dituzten deialdien bidez, hala Hegoko herrialdeetako proiektuetarako nola norbere herrialdean sentiberatze jarduerak burutzeko. Horretarako, GGKE bakoitzak hurrengo urtean burutzeko jardueren aurreikuspena egiten du urtero eta aurreko urtean onartutakoarekin lan egiten du.

Kudeaketaren egitura, hau da, proiektuen kudeaketa osoaz (zehaztapena, formulazioa, burutzapena eta jarraipena) arduratzen den pertsona liberatua %30-40an fondo publikoen bidez finantzatu ohi da, gainerakoa GGKEaren beraren fondoetatik atera beharra dagoelarik: bolondresen lana, erkide-tuen kuotak, fondoak lortzeko ekintzak (publizitate kanpainak, bidezko merkataritza, artelaren salmenta) edo sentiberatze kanpainak...

GGKEek, bestalde, instituzioen subentzio deialdietan sartzen ez diren jarduerak ere burutzen dituzte, dela jardueron eduki politikoagatik, dela instituziook betoa jarritako herrialde batean egiten direlako edota GGKEek sarbidea duten deialdien irizpideek lehentasuna ematen ez dietelako. GGKEak bere helburuekiko leiala izanez jarduera horiek burutu nahi baditu (jarduerok %10 ingurura iritsi ohi dira), horretarako fondoak eskuratzen ahalegindu behar du.

Hortaz, GGKEen egungo zeregin garrantzitsua da beren egituraren egonkortasuna ziurtatzeko eta aipatutako jarduera mota horiek egin ahal izateko fondo pribatuak lortzea. Gainera, baliabide pribatuon lorpena bateraezina gertatzen da, sarritan, hain zuzen ere GGKEek kooperatzen duten gizarteetako arazoen eragileak diren sistema neoliberalaren agenteak ez bultzatzearen planteamendu etikoarekin. Horrela, GGKE batzuen iritziz fondo pribatu ugari edukitzea bada ere lokabe izateko modu bakarra, halako fondoek, gehienetan, emaileenganakoko -Eliza Katolikoa, kongregazio erlijiosoak, enpresak, alderdi politikoak edo sindikatuak- leialtasun exijentziaren kontrapartida izaten dute.

Halaber, GGKE guztien erronka da, sorrerako helburuei eutsi nahi badiete, instituzio publikoekiko independentzia lortzea. Horrek, lehenik, erakundearen helburuen definizio argi bat eskatzen du, eta bigarrenik, berriaz, eskuratutako baliabideen eta erakundearen helburuen arteko koherentziari eutsiko dioten jarduera, baliabide eta finantzaketa iturrien plangintza. Hazteari mugak jartzea ere beharrezkoa da, zeren fondoak lortzeko aurrerajauziak oso ezegonkortzaileak dira GGKEen lanerako. Azkeneaz, nahitaezkoa da finantzaketa iturrien dibertsifikatze politika bat diseinatzea, jarduerak finantzatzailearen interesen mende inoiz ez jartzeko.

GGKEen arteko harremanak

GGKEek elkarren arteko harreman etengabeak dituzte beren kezkak partekatu eta arazoak planteatzeko topagune nahiz eztabaida eta gogoeta gunetzat jotzen diren koordinakunde, sare eta plataformen bidez. Koordinazio egitura horien lana honako hauei buruzkoa da batez ere:

- a) GGKEei eurei buruzkoa, lankidetzaz eta solidaritateaz elkarrekin gogoeta egiteko, prestakuntza sustatzeko, jarduerak koordinatzeko, zereginak bikoiztea ekiditeko, ezagutzak eta esperientziak trukatzeko, lankidetzaz bultzatzeko...
- b) Gizarteari buruzkoa, sentiberatzea edo/eta ekintzen eragin ahalmena bultzatzen duten denen arteko jarduerak sustatuz;
- c) Instituzioei buruzkoa, lankidetzaz politiken eragin ahalmena areagotzeko, kutunkeria eta faboritismoa gutxitzeko...

GGKEek koordinazio horizontal nahiz bertikalaren egiturak bultzatu eta tinkatzeko lanari ekin behar diote, egungo barreiaketa eta zatiketari aurre egiteko, programen eragin handiagoa erdiesteko, erakunde ezberdinen arteko elkarlanean jarduteko -horrek ez duelarik esan nahi GGKE bakoitzaren aberastasuna eta berezitasuna arriskuan jartzea-, bolondresen partehartze handiagoa lortzeko dinamikak eta baterako planak sustatzea, proposamen alternatiboak egitea, egitura aldaketaz zer ulertzen dugun zehaztea eta ezagutzera ematea, lankidetzaren politiketan elkartzunezko irizpideekin parte hartzea eta gobernuei presio egitea.

4. GGKEen eta beste eragile sozial nahiz instituzional batzuen arteko harremanak



GGKEak garapenaren aldeko lankidetzaren alorrean diharduten solidaritatezko kolektiboen, erakundeen eta instituzioen espektro zabalaren osakide dira. Azken hamarkada honetan eginkizun garrantzitsua bete dute planetako herri txirotuenganako elkartasunaren aldeko gizarte-ardura hedatzen, eta horrek hedabideen eta gizartearen laguntza ekarri die.

Esan genezake azken hamar urte hauetan GGKEen “boom” bat gertatu dela gure ingurune hurbilean, altruismoaren, konpromiso solidarioaren eta Hegoko pobrezia-aren aurkako borrokaren gizarte-erreferenteetariko bat bihurtu direlarik. Sinesgarritasuna, legimititate morala eta gizarte-onarpenari dagokionez halako gorakada azkarrak jende gaztearen kezkak eta borondatezko konpromisoa erakartzen duten erakunde ere bihurtu ditu. GGKEak, horrela, beste zenbait eragilerekin harremana eta elkarrenergina (etengabeki eta ez beti harmonikoki) duen gizarte-eragile bat gehiago bihurtu dira: hedabideekin, gizarte zibileko gizarte-mugimendu eta erakundeekin, administrazio publikoekin (tokiko, autonomiako, estatuko nahiz estatuarteak) eta unibertsitate, sindikatu, enpresa eta halako instituzioekin, kasu.

Finantza bitartekari izatetik...

Eragile sozial eta instituzional horiekin gauzatzen diren harremanak, bestalde, harremanon edukia eta baterako lankidetzaren nahiz lanaren ahalbideak neurri handi batean baldintzatzen dituen ongizateari eta gizarte-garapenari buruzko testuinguru politiko eta ideologiko jakin batean garatzen dira. Izan ere, XX. mende honen hondarretako mundu panorama eta testuinguru ideologiko orokorra, izatez, garapenaren motoretzat merkatua eta lehiakortasuna (merkatuen liberalizazioa eta desregulazio ekonomikoa) sakralizatzen dituen globalizazio neoliberalak markatuta datorkigu, halatan non garapen eta nazioarte lankidetzako politika publikoak aahuldua geratzen diren, gizarte-ongizatea bultzatzeko ego-kienak ez direlakoan.

Doktrina neoliberalen arabera, pobrezia eta desberdintasuna ez dira konpontzen politika publikoen bidez, zergabidezko errenta birbanaketaren bitartez edo nazioarteko lankidetzaren bitartez. Doktrina neoliberalaren arabera, merkatua- ren funtzionamendu malguak baizik ez du ahalbidetzen inbertsioa sustatzeko beharrezko doikuntzak sortzea, produkzioa biziagotzea eta dinamismo ekono-

mikoa areagotzea, azken honek ekarriko duelarik epe erdira aberastasuna sortzea eta, azkenez, behartsuenek kapitalismoaren onuretan parte hartzea. Hauxe da eredu desarrollista, egungo nazioarteko testuinguruan posibleztat jotzen den eredu bakarra. Halere, gero eta ahots gehiagok ohartarazten du ekonomi eta gizarte-garapenaren eredu hau ez dela bideragarri ez eutsigarri Iparreko gizarte-etan euretan ere, gero eta desoreka larriagoak sortzen dituelako gizarte nahiz inguramen mailan, hurrengo belaunaldien geroa aintzat hartu gabe.

Globalizazio neoliberalaren efektu gertuena zera da, lehiatzeko lehendik baldintza onenetan zeudenei (herrialde aberatsetako elite ekonomiko eta politikoei) ematen diela aukera gehiago eta gizarte-sektore eta herrialde pobreeni aukera gutxiago. Azken batean, gizarte-desberdintasunak larriagotu egiten ditu, aberatsenek aberatsago bihurtuz eta pobreentzat miseria handiagoa sortuz. Ez-lehiakorren bazterketa horrek egonezina eta marjinalizazioa sortzen du, ondoriozko gizarte-ezegonkortasuna, gatazkak eta biolentzia areagotzen direlarik. Horrela, mota ezberdinetako larrialdi egoerak eta katastrofe humanitarioak gertatzen direla ikus dezakegu aldiro, eta horietariko batzuek, hedabideetan oihartzun handia izanik giza tragediaren ikusgarritasun eta dramatizazio dinamika sortzen dutenek, kontu korronteen irekieran eta dirua biltzeko maratoi lehiakorretan bukatzen direla (solidaritate interesatua eta merkantilizatua).

Horren guztiaren ondorioz, desberdintasuna eta pobrezia berezko zerbait dela, beti izan dela eta beti izango delako ideiak berrartzen du indarra; eta gure obligazio bakarra behartsuenei beren egoera arin dezaten laguntza ematea dela. Miseria, izatez, gizakien esku dauden funtzionamendu ekonomiko eta politiko jakin batzuen ondorio dela ahortzi ohi da. Baita ahanzten da azpigarapenaren, gosearen eta degradazioaren aurkako borroka pertsona guztien oinarritzko eskubideak bermatzeko daukagun beteharraren barne sartzen dela. Ahuldu egiten da, horrela, justizia birbanatzailearen eta pertsona ororen oinarritzko eskubideak errespetatu beharraren zentzuak gidaturiko solidaritatezko egintza gisa, eta ez soilik pena, karitate edo erruki sentimenduek gidaturiko egintza gisa, ulertzen den garapenerako lankidetzaren printzipioa.

Era horretara, larrialdi egoerak aintzera zuzendutako fondo bilaketan guztiz zentratutik dagoen GGKEen eta lankidetzaren ideia doa indarra hartuz. Horrek asko baldintza dezake GGKEek gizartearekin eta bere gizarte-eragile ezberdinekin duten harreman mota. Eskema ideologiko neoliberalaren arabera, merkatuan lehiatu ezin duten gizarte-sektoreek halabeharrez jasango duten marjinazioa eta bazterketa leuntzea gizarte zibiletik berez sortzen diren erakundeei eta sorospen taldeei dagokie. Zentzu horretan, GGKEek pobrezia eta bazterketa gehitzen duten prozesu ekonomiko eta politikoei lan osagarri eta funtzionala egin dezakete. Hori horrela, gure arrisku larrienetarikoa bat gainerako agenteen (publiko nahiz pribatu) eta oro har hiritarren finantza bitartekari soil bihurtzea da.

Horrelako inertziek, izan ere, lankidetza gure gizarte eta ekonomi eredua auzitan jartzen ez duen norantza bakarreko jarduera gisara barik, herrialde aberatsen garapen eredua auzitan jartzen duen norantza biko prozesu gisara planteatzea ahalbidetzen duten harreman mota sakonago eta aktiboagoak gainerako gizarte-eragileekin burutzeko aukerak eragotz ditzakete. Bestelako ongizate ereduak gauzatzea posible ez ezik, premiazkoa ere badela planteatzea dezaketen harremanak, alegia; aurrerapena ekitatiboa, integratzailea eta ingurumenarekiko begirunetsua izan daitekeela planteatzen dutenak; eta ekonomiak pertsonen zerbitzura egon behar duela eta ez alderantziz, halako moldez, non, herrialde batekoak edo besteak izatearren edo halako nahiz bestelako ezaugarri fisiko zein kulturalak izatearren bereizketarik gabe, pertsona guztien estalpe, janari, osasun, hezkuntza eta gizarte-integrazioko oinarritzko premiei erantzungo dien giza garapen eutsigarria bermatu ahal izango dugun, gure gaitasunak egikaritzeko eta gure ahalmenak garatzeko aukerez gozatuz horrela.

... gizarte-dinamizatzaile izatera

Nazioarteko lankidetzak aurrez aurre dituen arazo eta erronka berriei begira premiazkoa da honako gogoeta egitea, hots, GGKEek nola sar dezaketen, gainerako gizarte-eragileekin dituzten harremanetan, aberastasunaren birbanaketan eta bidezkoago bezain eutsigarriago datekeen ongizate eredu batean oinarrituriko giza garapenaren eztabaida eta praktika.

Orain arte, GGKEek instituzio publikoekin, beste gizarte-mugimendu batzuekin eta gizartearekin izan duten harreman eredua garapena eta lankidetza ulertzeko era jakin batek baldintzatu du. Aurrerapenaren ikuspegi desarrollista eta linealak, hala nola lankidetzaren sorospen ikuspegiak aberastasunaren bidezko birbanaketari eta horren ondoriozko garapen ereduaren birplanteamenduari buruzko eztabaida bazterrera uzten duen harremanen norabide bakarreko eredura eraman du. Horrela, hala GGKEen nola gizarte-mugimenduen (ekologista, antimilitarista, internazionalista, feminista, arrazismoaren eta gizarte-bazterketaren kontrako) gaitasuna ahultzen da aipatutako gizarte-eredua eta bertatik sortzen diren injustizia eta desorekak kritikatzeko eta salatze.

Giza garapen eutsigarriaren eredu oinarrituriko lankidetzaren ikuskerak, aberastasuna birbanatzeko neurri eraginkorren eta aukera nahiz eskubide berdintasunaren defentsaren premiak, GGKEek beste gizarte-eragile batzuekin dituzten harremanak ildo hauen arabera birplanteatu beharraz pentsarazten digute:

- Hemengo gizarte-mugimenduekin ditugun harremanak tinkatu beharra, inguruan dugun errealitatean gehiago inplikatur, gure diskurtso kritikoa aditzera emateko eta errealitate horren eta Hegoko gizartearen artean lokarri sendoagoak finkatzeko.

Egungo joera neoliberalen aurrean diskurtso eta praktika kritiko bati eustekak beste gizarte-erakunde eta mugimendu batzuekin aliantzak sendotzea eskatzen du (sindikatuak, nekazarien organizazioak, feministak, ekologistak, antimilitaristak, internazionalistak, arrazismoaren kontrakoak, bazterketaren kontrako plataformak...). Garapenaren eta sentiberatzearen aldeko proiektuak dira GGKE gehien bi lan esparru garrantzitsuenak. Horiei beste erakunde eta mugimendu batzuekin garatzeko harremanen eta kanpainen arloa eransteak hobetu besterik ez luke egingo gure eragin sozial eta politikoen ahalmena.

Bestalde, egungo globalizazio neoliberalaren aitzindari diren instituzio, foro eta eragileen aurrean kritika lana egin eta eragin politikoa izateak nazioarteko gizarte zibilaren sareetan aktiboki parte hartzea eskatzen du, lan horri lehentasuna emanez eta ahalegin, energia nahiz baliabide bolumen garrantzitsu bat horretara bideratuz.

Beraz, guk nahi dugun globalizazio ereduari buruzko diskurtsoa eta praxia mamitzeko -hots, justizia sozialaren gaiari, aberastasunen birbanaketari eta ingurumenarekiko begiruneari lehentasun nagusia ematen dion globalizazioa-, beste erakunde eta gizarte-mugimendu batzuekin konbergentzia lana erabakitsuki aktibatu beharra nabarmentzen da.

- Beste gizarte-eragile batzuen (unibertsitatea, sindikatuak, eskolak, osasun zentroak, langileen kolektiboak, nekazariak...) inplikazioa eta partehartze zuzena bultzatzea Hegoko euren kideekin truke-programa eta proiektuetan, elkarren ezagupen zuzena eta elkartasun horizontala nahiz norantza bikoa ahalbidetuko duten senidetze, partzuergo edo trukeak sustatuz.

GGKEek erakutsi behar dute mundu guztiak duela eginkizunen bat solidaritateren eta lankidetzaren; beraz, protagonismoa bazterrera utzi eta "trukeen bide-emaile edo dinamizatzaile" eginkizuna garatu behar dute, gizarteak oro har lankidetzaren solidarioaren erantzukizuna bere gain har dezan.

Solidaritateren, dirua ematea baino gehiago, behartsuenen errealitatearekin etengabeko truke eginkizuna burutuz zuzenki inplikatzeko delako ideia zabaldu behar da, gainera. Truke lan hori sustatzearen ondorioz etorriko litzateke gure gizartearen kontzientziazte eta heziketa kritikoaren (sentiberatzearen) eginkizunak teoriatik barik, behartsuenen errealitatearen ezagupen zuzena praktikan ezagutzera emanez burutu ahal izatea; birbanaketaren, eskubide unibertsalen eta eutsigarritasunaren problematika gure gizartearen errealitatearekin eta beronen ekonomi eta gizarte-ereduekin lotuz.

- Euren lankidetzaren ekimenetan beste interes batzuei (interes politikoei, ekonomikoei edo merkataritza irudiari) lehentasuna ematen dieten instituzio publiko nahiz pribatuek erabil gaitzaten ekiditea.

Lankidetzarako “denak balio” duelakoak, solidaritate interesatu eta merkantilizatuak sakonki desitxuratzen du elkarrenganako begirunetik eta bi norantzako truketik abiatuta gure errealitatea auzitan jartzen duen lankidetzaren balioa.

Zentzu honetan, haustura eta “ez kolaboratze” edo “planto egite” jarrera eta portaera publikoak burutu beharko lirateke soilik interes partikularrei edo lankidetzaren solidarioaren kontrakoei erantzuten dieten politika eta ekimenen aurrean. Aurkako jarrera horiekin batera instituzio publikoei zuzendutako eskari hau ere planteatu behar da, hots, haien gainerako politikak giza garapenari, gizarte-bazterketari eta inguramen eutsigarritasunari dagokienetan koherenteak izan daitezela.

5. GGKEen harremanak Hegoarekin



Nazioarteko testuinguru ekonomiko eta politikoa gertaturiko aldaketek larriki erasan dituzte Hegoko herrialde askoren garapen aukerak, eta lankidetza jardunek parametro berriak sortu dira aldi berean. Iparreko GGKEen eta Hegoko gizarte-erakundeen arteko harremanek ere aldakuntza sakonak izan dituzte, guztienez bi faktore hauen konbinaketari esker:

- Hegoko gizarteetan gertatu diren aldaketak herri antolaketa eta mobilizazio formetan, halako moldez, non elkarte tradizionalen ahuleziak (sindikatuak, nekazarien erakundeak, auzo elkarteak) eta nazioarteko lankidetzaren finantzaketak elkarte-figura berri bati eman dioten bide: Gobernuz Kanpoko Erakundeei (GKE). Hauek, batzuen arabera, “bitarteko garapen instituzioak” lirateke eta, beste batzuen iritziz, “herri garapenerako eragileak”.

Baina gure gizartean bertan ere aldatu dira Hegoarekiko solidaritatea eta lankidetza gauzatzeko erak, ikustea besterik ez dago GGKEek duten presentzia hazkorra orain dela hamabost urte baino gutxiago solidaritate politikoko mugimenduak nagusi ziren guneetan. Horren guztiaren ondorioz, Hegoko GKEak Iparreko GGKEen mintzaide nagusi bihurtu dira garapenerako lankidetza jardunean.

- Garapenari buruz hedatu den ikuspegi berria, zeinen arabera garapena ez dagokio soilik hazkunde ekonomikoari, baizik eta giza ahalmenak tinkatzea eta kolektibo baztertuen protagonismoa areagotzea dauzka xedetzat. Ikuspegi honen arabera, pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurkako borroka banaezina da giza eskubideak indarrean jartzetik eta genero parekotasuna, ingurumenaren begirunea, demokraziaren sustapena eta abarren lorpenetik.

Giza garapenaren proposamenari lotutako kezka berri hauek GGKEen eta euron Hegoko mintzaideen arteko beste lankidetza esparru batzuk sortu dituzte, nazioarteko instituzioei presio egiteko sareak eta aliantzak ere eratu dituztelarik; harreman gatazkatsuen iturri ere izan daitezke, halere, batzuek eta besteek helburu horien lorpena beti konbentzimendu berdinez onartzen ez duten heinean.

Koordenada horien barruan, GGKEen Portaera Kodea gida ona da lankidetza alorrean diharduten Iparreko eta Hegoko erakundeen artean harremanak berrikusteko. Izan ere, Kode horrek argi eta garbi esaten baitu GGKEek “Hegoko herrialdeekin lankidetzan dihardutela, lankidetza hori berdinen arteko, elkarren

arteko eta elkarren aberasgarri den truke gisa ulertzen delarik, garapena bultzatzea eta pobrezia eraztea xedetzat hartuz”.

Seinalatzen du, halaber, garapen proiektuen eremuan, GGKEak “Hegoko gizarte-erakundekin harreman estuan lan egiten dutela eta eurok bezalako helburuak eta lanaren ikuspegia dutela, gurasokeria edo Iparretiko irizpideen inposaketa barik, elkarrekikotasunean eta errespetuan oinarrituriko lankidetza sustatzen duten elkarketa-erlazioak ezarritik”.

Nahiz eta aipaturiko printzipio horiek bideratu behar luketen Iparreko GGKEen eta euron Hegoko erakundekideen arteko lankidetza, praktikan harreman horiek gurasokeriak edo inposaketak markatuago daude, elkarketa begirunetsuak baino. Maizegi erabakitzen dute Iparreko erakundek Hegoko zein arazok duen lehentasuna eta zein utzi behar den geroagorako, Hegokoek beren lanerako zenbat baliabide behar duten eta nola antolatu eta jokatu behar duten Iparrekoen laguntza hartzen dutenak. Hartara, GGKEek ere eurentxoak ekartzen dute Iparrek Hegoa menperatzeko sistema indartzeko.

Elkarte harremanak: aukerak eta arriskuak

GGKEek erronka bat dute aurrean: lankide dituzten Hegoko gizarte-erakundekin benetako elkarte-harremanak eraikitzea. Hau egiteko, ongi oharturik egon behar dute zenbait helburu eta ezaugarri instituzional konpartitzeak planteatzen dizkien aukerez, baina baita batzuek eta bestetuek “nazioarteko lankidetza katean” duten posizioetik eratorritako arriskuez ere, hau da, populazio emaleek (Iparreko herritarrak eta gobernauak) luzaturiko baliabideak populazio hartzaileari hurbilazten dizkieten bitartekotza guztiez.

GGKEek eta Hegoko GKEek zenbait ezaugarri instituzional konpartitzen dituzte, besteak beste, inpaktu soziala eragin nahi duten erakunde egonkorak izatea, irabazi-asmorik ez edukitzea, kudeaketa eraginkorra bilatzea eta funtzionatzeko inoren baliabideak behar izatea. Kidetasun hauek oinarri sendoa eskaintzen dute erakunde mota biok batera hainbat gauzaz hausnarketa egiteko, hala nola, gizarte zibilarekin, merkatuarekin eta Estatuarekin dituzten erlazioez, gaur egun nagusi den lankidetza ereduan betetzen duten paperaz eta eguneroko jokaeran aurre egin beharreko tentsioez (efikaziaren eta bolondrestasunaren artekoa, autonomia ekonomikoaren eta menpetasun ekonomikoaren artekoa, asistentzialanaren eta aldaketa estrukturalaren artekoa, etab.).

Arazo eta gai hauei buruz elkarrekin egindako hausnarketatik erakunde hauen arteko berdintasunezko harreman era berriak sor daitezke, beti ere gogoetok zintzotasunez eta batzuek eta bestetuek bizi dituzte testuinguru ezberdinak aintzat hartzeko giroan egiten badira.

Orobat, GGKEen eta Hegoko GKEen arteko aldeak aintzat hartzeak elkarrekiko begirunean oinarrituriko harremanak ezartzen lagun lezake. Bereziki inportantea da batzuek eta bestetziek lankidetzaren sisteman duten posizio ezberdina -elkarren osagarria baina- aitortzea, zeren, Hegoko GKEek GGKEetatik finantza eta teknika baliabideak hartzen dituzten artean, hauek haien beharrezakoa dute euren bizitzak eta lanak zentzua dutela sentitzeko.

Truke bat egiten da, “baliabideak legitimotasunaren truke”, berdintasunezko erlazioen iturri beti ez dena; aitzitik, truke horrek Hegoko GKEengan menpekotasun handia sortarazten du GGKEek ekarritako fondoekiko, euren intereseko jokabidea autonomiaz erabakitzeko gaitasuna ere ukitzerainokoa eta are euren sorrerako helburu nagusiak arriskutan jartzearainokoa. Hau GGKEen eta Hegoko euren erakundekideen arteko harremanetan gako den alderdia da, alde biek arduraz hartu behar luketena.

Alde bi horien artean berdintasunezko harremanak eraikitzeak eginkizunak, lehenik eta behin, egungo desberdintasunaren kausa sakona elkarrekin jorratzea inplikatzeko du: GGKEek zehazten dute, eskuarki bederen, zer garapen mota sustatu nahi den, esku hartzeko zein diren lehentasuna duten sektoreak, eta zein terminotan jardun Hegoako erakundekideekin lankidetzan, hauek euren lana burutzeko behar dituzten baliabideak haiek dauzkatelako edo aise samar lor ditzaketelako.

Baina honako hauetarako behar diren prozedura instituzionalak ezartzea ere inplikatzeko du:

- Gogoetak konpartitzeko hala Hegorako nola Iparrerako nahi den garapenari buruz.
- Elkarrekiko konpromisoak eta erantzunkidetasunak ezartzeko adosturiko helmugen erdiespenean.
- Batzuen eta bestetziuen lanari dagozkion erabakiak hartzen parte hartzeko mekanismo argiak diseinatzeko.
- Elkar informatzeko bideak erregularizatzeko.
- Alde biek batera aurrera eraman beharreko sentiberatasun, salaketa eta presio politikarako estrategiak prestatzea.

Baliabide-hornitzaile izatetik... borroka komunitario kide izatera

Euskal GGKEen panoraman gero eta identitate krisi handiagoa nabari da Hegorako “baliabide-hornitzaile” izateari dagokionez. Nahiz eta horixe izan

duten sorrerako “eginkizun” GGKE gehienek eta euretako ez gutxi leporatu duten gizarte-erantzukizunaz jabetuta egon (“ongi” bete behar dute zeregin hau, zentzu teknikoko efikaziaz eta eraginkortasunaz), euretariko asko kezkatuta daude eren jarduna baliabideak kudeatzera mugatzen delako eta are kezkatuago baliabideok oso eragin mugatuko proiektu txikietarako erabiltzen direnean.

GGKEen eta Hegoko GKEen arteko harremanak baliabide jarioaren arabera koak direnez oso, sortzen den zalantza hauxe da: harreman horietatik zer geratuko da “zubi” hori makaltzen edo zeharo hondatzen bada? Esperientziak helaraztea, baliabidez gain, GGKEek lankidetzan diharduten gizarteetan gertatzen dena salatzea, proiektu konkrituak herrialde horietan garrantzitsuak diren gai politikoekin bigiztatzea, Hegoko erakundeetatik ikastea, proiektuak politizatzea,... proposaturiko alternatibetako batzuk dira.

GGKEak ongi konturatzen diren arren proiektuak eta salaketa bateragarri bihurtzea ez dela erraz eta kostuak dakartzala, baita ere ikusten dute beharrezko dela euren eta Hegoko GKEen artean proiektuak baino irmoagoak izango diren “zubi” berriak eraikitzea: Kanpo Zorra barkatzea lortzeko kanpainak, Merkataritzaren Mundu Erakundeari batera aurre egiteko estrategiak, aldeaskotako erakundeekiko, ingurumen baliabideekiko eta Estatuen jokaerekiko kontrol handiagoa, Doiketa Estrukturalako Politiken eraginaren errebisioa,... Baliabideak Iparretik Hegora pasatzetik harago doazen lankidetzak esparru berriak dira hauek, munduko erlazio ekonomikoen inguruko gai larriagoekin zerikusia dutenak.

Garrantzi politiko eta ideologiko handiagoko jokaeren nostalgia moduko batek eta egitura-aldaketaren aldeko borrokan gehiago inplikatu nahiak GGKE asko proiektuen kudeaketek ez dutela lankidetzak eta solidaritate harremanak agortzen planteatzera daramatzate, eta halaber Iparreko GGKEek eta Hegoko GKEek proiektu politikoak ere konparti ditzaketela eta borroka komunetarako aliantzak egiteko interesa ukan dezaketela ikustera.

Egitekoa, izan ere, gure artean nagusi den lankidetzak ereduaren eragina izatea da, eredu hau teknikoki eraginkor ez ezik, solidarioago eta aldaketaren alde engaiatuago bilakatzeko; eta egiteko hau, lankidetzak ofiziala zenbat eta asistentzialago eta “humanitaristagoa” bihurtu beste lankidetzak mota osasungarriago eta eutsigarriago batzuen kaltetan, orduan eta premiatsuagoa da.

Hurbileko etorkizunari dagokionean, GGKEek euren buruari galdetzen diote ea Europako Batzordeak diru-laguntzak Hegoko erakundeei zuzenean, gobernuak kanpoko lankidetzak erakunde europarrak bitarteko gisa erabili gabe, emateko joerak hauen eta Hegoko GKEen arteko harremanetarako inplikaziorik ekarriko lukeen. Erantzunak ezberdinak dira eta argi erakusten dute eztabaida hau hasiera-hasieran dagoela GGKEen unibertsoaren baitan.

Horrela, GGKEak euren ahalegin gehienak garapen proiektuak kudeatzen emateari uztera beharturik aurkitzearen posibilitatea kezkaz beterik ikusten dute ba-

tzuek (“GGKEak, egun diren moduan, desagertu egingo lirateke”, “gure gizarte-an desaktibatu egingo litzateke aldaketaren aldeko borroka”, “Hegoko GKE guztiek ez lituzkete baliabide horiek hartuko, kooptagarrienek bakarrik baizik”), beste batzuen ustez, ordea, hori gertatzea aldaketarako abagune bat litzatekeen artean (“GGKEek birmoldatu beharra izango genuke, nahitaez”, “ez ginateke jada beharrezkoak”, “*proiektitisa* bertanbehera utzi beharko genuke eta hemen-go geure gizarteak aldatzeari ekin”).

Azkenez, lankidetzan dihardugun gizartearen errealitate konplexuei buruz informazio eta azterketa maila handiagoak lortzea GGKEek aurrean duten erronka handiago baten zati da, erronka hori honako haxe delarik: Hegoko euren erakundekideekin ezarritako berdintasun eta begirunezko harremanek Hegoko herrien protagonismoa indartzen laguntzea lortu, haien gaitasunak areagotuz, euren garapenaren subjektu eragile izan daitezen. GGKEek ezin dute ahantzi Hegoko GKEek ez dutela agortzen gizarte-kolektibo eta erakundeen espektro osoa eta hauekin ere ezarri ahal eta behar dituztela lankidetzak eta solidaritateko harremanak.

6. GGKEak eta gizartearekin duten komunikazioa



Gizartea sentiberatzea: egiteke dagoen zeregin bat

GGKEen Portaera Kodeak planteatzen du gizartea garapenerako sentiberatzea eta hezitzea GGKEen lantegi nagusi dela, eta zeregin hori honelaxe definitzen du: "gizartean justizia eta solidaritate baloreak suspertuz jarreraren eta portaeraren aldaketa bultzatzen duen prozesu eginkor eta sortzailea".

Hegoko gizarteekin solidariza daitezen herritarrak informatu, sentiberatu, kontzientziatu eta mobilizatzea GGKEen zeregin nagusi diren arren, alor honetan egiten dituzten ekintzak eta eurotarako baliabideak urriak dira, herrialdeetan lankidetzaren proiektuak burutzeko eta publizitate kanpaina batzuetan erabiltzen direnekin alderatuta.

Hala erakunde publikoek, deialdi ezberdinak arautzen dituzten oinarrietan, nola GGKEek, euren kodeetan, planteatzen dute lankidetzaren helburu printzipaletako bat solidaritatearen kultura sustatzea dela. Helburu garrantzitsu horretarako, alabaina, ageri diren zifrak ikusita, garapenerako lankidetzaren aurrekontu globalaren portzentaia txiki-txikia erabiltzen dela egiaztatzen da. Gainera, batzuetan, horretarako esleituriko partida urria gastatzeko adina eskaerarik ere ez da egiten. Hemendik atera daiteke sentiberatzea ez dela lehentasunezko zeregin ez instituzioentzat ez GGKEentzat eurentzat ere.

Sarri altxatzen dira ahots kritikoak, GGKEen baitan ere, sentiberatzeko ekintzak barreiatuta eta puntualki egiten direlako, gizartean eragin eskasa dutelako, jokarak bikoizten direlako eta erakundeek arlo honetan koordinatu gabe jokatzen dutelako.

Sentiberatze kontuan jokaeren bikoiztasunak gizarte-aldaketarako eragingarriak gehi ditzakeen arren, egunean baino egunean beharrezkoagoa da GGKEek darabiltzaten heziketa-estrategiak errebisatzea. Estrategia hauen helburua gizartearekin era egonkor eta eragingarrian komunikatzea baldin bada, tresna egokiak bilatzea, lanak epe luzeagora koordinatzea eta erakundeon ekintza eta kanpainen eragina ebaluatu ahal izateko adierazleak diseinatzea zeregin geroraezinak dira. Era berean, premiazko da sentiberatzeko jardueren finantzazio arazoak konpontzea, kontutan izanda erakundeon finantza-egiturak neurri handian baldintzatzen duela hauek gizartearekin dituzten harremanak eta darabilten sentiberatze eredua.

Gai eta arazo horiez gain, BBGKek honako hauek izan behar dituzte hausnargai:

- Beren ekintzetan sartzen dituzten mezuak: gutxi aipatzen dira arazo inportante batzuk, hala nola, munduan pobrezia eta gatazka armatuak sortarazten dituzten eragileak, nazioarteko erlazio injustuen sorreran eta iraupenean Iparreko herrialdeek dituzten erantzukizunak, garapen arazoek Iparreko gizartearen produkzio et kontsumo erekin eta berauen eta Hegoko herrialdeen arteko aberastasun-banaketa injustuarekin duten lotura. Era berean, sentiberatze eta heziketa kanpainetan ez da ageri genero ikuspegia.
- Sentiberatzeaz lortu nahi dituzten helburuak: publizitate motako edo bestelako helburuen aurrez aurre GGKEek argi esan behar dute diharduten gizarteako ideien, jarreraren eta portaeren aldaketa dutela helburu. EAEko GGKEen Koordinakundeak zenbait kontzentzu aurreratu ditu alor honetan Lankidetzak Kontseilu Aholkularian aurkeztu duen “Baremazio irizpideak garapenerako sentiberatze eta heziketa proiektuetarako” proposamenean.

Kausadun marketinga

Kausadun marketingaren bultzatzaileek gobernuak kanpoko lankidetzaren eremuan sartu dute tresna hau, daukan merkataritza izaera nabarmena bigunduta, enpresetara konpromiso sozialarenak diren elementuak sartuz. Etika modan dago eta solidaritatea merkataritzako ondasun bihurtu da; horren ondorioz, *kausadun marketingeko* ekintzak bultzatzen dira balore horiek irudikatzen dituztelako eta enpresen funtzionamenduko paradigma utilitaristan bete-betean sartzeari direlako.

Eszenategi honek enpresa sektorearen eta GGKEak dauden “Hirugarren Sektorea” deritzonaren artean hurbilpena eta elkarreragina sortzeko ahalbidea ireki dezake. Hala ere, hauek eztabaidan sakondu eta gutxieneko adostasun batzuk lortu behar dituzte hurbilpen horri dagokionez. *Kausadun marketingeko* ekintzak enpresen gizarte eta inguramen konpromisoa arautuko duten Portaera Kodeen garapenarekin eta merkataritzaren eta inbertsioen nazioarteko erregulazioan aldaketak bultzatzearekin lotzea ezinbesteko urratsa da, hurbilpen horren xedea enpresa babesleek GGKEak tresna bezala erabiltzea besterik ez dela segurtatzeko.

Bestalde, enpresen eta GGKEen arteko lankidetzak kontratueta, lankidetzaren efikazia ebaluatzeko irizpidea finantza baliabideak lortzearekin edo sinatzaileen irudia edo entzutea areagotzearekin lotu beharrean, bultzatzen ari garen programen errentagarritasun sozialarekin zerikusia duten baremoak ezarri behar lirateke eta elkartzeko horiek gizartea hezi eta sentiberatzeko erabili.

Kausadun marketing orok bere arrakasta ahalbideak ahalik gehien areagotzeko, oinarritzko printzipio hauexek errespetatu behar lituzke:

- Zuzentasuna: ondradutasunean eta gizaki ororen duintasunarekiko errespetuan oinarrituriko kode etikoaren arabera jokatzeta.
- Gardentasuna: komunikazio ona alde guztien artean.
- Zintzotasuna eta egiazaletasuna: motibazio argiak eta oportunistorik ez.
- Lankidetzeta: etekinak eta arriskuak konpartitzen dira.
- Aukeraturiko kausan konpromiso iraunkorra gorengo mailan.
- Programa enpresaren estrategia globalera sartzea.
- Kausaren eta enpresaren balore, kultura eta historiaren arteko kidetasuna.
- Programa etengabe komunikatzea, hala barruan nola kanpoan.
- Eredu kontsumistak bultzatu barik jokatzeta.

Horrelako ekimenek dituzten alderdi onen eta arriskuen inguruko hausnarketa eta eztabaidek gauza asko egiten lagundu behar lukete, hala nola, GGKEen egin-kizunaz birpentsatzen, azpigarapenaren, bazterketaren eta pobreziazen azken kausak zein diren atzematen eta, beraz, Iparreko gizartezen (euren enpresak ere barne) portaerekiko egungo Hegoko bizi baldintzek duten lotura hondagarriaz hobeto ohartzen.

Edonola ere, GGKEek ez lukete sinetsi behar “balioak konpartitzea” aipatzen duten argudioak, horrekin esan nahi dena “interes konpartitzea” denean bederen. Enpresek beren marakara kontsumitzaileak erakartzeko baloreek ez dute zertan izan nahitaez GGKEei edo gizarteari oro har gehien interesatzen zaizkienak. Enpresentzat baloreak konpartitzea bitarteko bat den artean, GGKEentzat helburu da, baina helburuak ez du justifikatzen edozein bitarteko erabiltzea.

Bestalde, GGKEek ez liekete utzi behar enpresei zenbait balore jeneralean eta bizitza osorako berenganatzen, gizarte-ekintza batzuk burutzen dituztelako edo horretarako plan edo ekimenen bat daukatelako. Gure inguruan gaur egun nagusi den kausadun marketingaren formatu barruan, enpresek prest daude zenbait balore sozial eta etikoren -ez guztien- inguruan konpromisoak hartzeko, kome-nigarrien zaien une estrategikoan (ez beti), transmititzeko edo zenbait kolektibo-ri -ez guztiei bereizketarik gabe- mesede egiteko, beti ere horrek kontsumitzailearen hobespena eta, beraz, onura ekonomikoa badakarkie.

Komeni da, halaber, gogoratzea enpresa sektoreko zati handi batek baduela ahalbidea kausadun marketingeko ekimen hauei egindako ekarpenetatik askoz gorago dauden laguntzak luzatzeko kausa solidarioei. Gainera “politikoki zuzenak” ez deritzeten edo marketing aldetik erakargarri ez zaizkien gizarte-kausak ez dute etorkizunik. Enpresek ez dute inoiz errukirik erakutsiko kausa hauen

alde, helburuak eta mezuak gizartearentzako bidezkoak eta positiboak izan arren. Korporazioek segurua ez den eta guztiz irudi positiboa emango ez dien edozein ekimenetik ihes egiteko joera dute.

GGKEak eta hedabideak

Informazioa beste ezer baino lehen ikuskizuna dela onartzetik abiatzen bagara, ulertuko dugu hedabideek Hegoari buruz egiten duten estaldurarik gehiena zergatik bideratzen den, orain lehen bezala, katastrofeetara, gerra eta gerra mehatxuetara, interes ekonomikoak uki ditzaketen aldaketa politikoetara eta ekintza huminitarioen premia eragiten duten krisietara.

Hegoari buruzko albisterik gehienak dramaren eztandara begira ageri dira, arreta handiegiz ageri ere, baina informazio urria ematen dute testuinguru historikolari nahi politikoari buruz; oso gutxitan ahomentatzen dira han abian jarritako garapen proiektuek. Ezereztzat edo hutsaren hurrengotzat hartzen dira bertako instituzioak eta handitzat nazioarteko ekimen eta ekarpenak. Hartara, kalteturiko populazioa gaieza eta pasiboa delako irudia helarazten da, eta lurralde hartako irudi negatiboak betikotzea lortzen da.

Eszenategi honetan GGKEak dira zerbait egiteko gai diren bakarrak eta,aldi berean, zerbait egingo duen ekintzailearekin identifikaturik sentitzen diren herri-tarren erantzun moralak ordezkatzeko dutenak. Honek hedabideek lankidetzako ekintzailearen iritzia bilatzea dakar, eta inoiz gutxitan populazioarena. Gainera txokokeriarako joera dago eta, adibidez, katastrofe zonan euskaldunak ez bada-go, albisteak interesa galtzen du.

GGKEk kontziente dira hedabideekiko harremanetan dituzten akats eta errakuntzez, gutxi direlarik haiekin aritzeko giza baliabideak eta denbora dutenak. Hedabideetan ateratzea nahi duten albisteen artean lehentasunak ezartzen ikasteaz gain, GGKEek komunikazioan espezializatua den pertsonala eduki behar dute, hedabideekiko harremanak hobetu eta Hegoko herriek dituzten arazoen kasuak ongi azaldu nahi baldin badizkiete.

Azkenez, GGKEek beren tarteak lortu behar dute hala hedabide publikoetan (eskubidea osoa baitaukate) nola pribatuetan, non iritzi orriez baliatu behar liritekeen euren mezu eta analisiak agertzeko. Era berean inportantea da herriko hedabide alternatibo eta ere harreman estuak lantzea.

7. Garapenerako heziketa, gazteria eta solidaritatea



Adierazle batzuek gazteen, neska-mutilen, egoera prekariotzat eta nahikoa larritzat sailkatzeko moduko datuak ematen dituzte. Lan merkatuaren eta hezkuntza munduaren arteko koordinaziorik eza, desenpleguaren goi mailak eta dagoen enpleguaren prekarioratasuna, etxebizitzarik eskuratu ezina eta, ondorioz, emantzipatu eta norbere bizitza antolatu ezina, behar bezainbatean bereiziriko erreferentziarik eta bizi proiekturik ez edukitzea dira, besteak beste, prekariedade panorama hau osatzen duten elementuak. Langabezia eta perspektibarik eza dira gazteek garrantzitsuentzat dituzten arazoetako batzuk.

Egoera honen aurrean, mota bitako erantzunak ematen ditu gazte jendeak. Joera bi dira, logikoa den moduan egoera puruan sortzen ez direnak eta gazteenak bakarrik beti ez diren ezaugarriak dituztenak, baina erreferentzia gisa balio dezaketenak. Lehenengo joeran ilusiorik gabe ageri diren gazteak egongo lirateke, bizitzan aurrera egin ahal izateko norgehiagoka bizian jokatu beharrean aurkitzen direnak. Izan ere, ez alferrik, inkestetan ikasketak egiteko ematen diren arrazoen artean pisurik handienekoa lana edo lanerako sarbidea emango duen titulua eskuratzea da, eta pisurik txikienekoa gizartearentzat baliagarri izatea. Hauek, dudarik gabe, jarrera akritikoago eta norberekoiagoak dira, baina, alde berderen, gaur egun gazteek bizi duten egoera latza islatzen dute.

Joera hau dutenek eremu pribatuetara biltzen dira (lana, familia, lagunak), gai publikoekiko (politika) interes falta nabarmena erakusten dute, antolaketa eta partehartze aktibo eskasa dute oso. Jarrera indibidualista hau ingurunean egun nagusi diren bizi-balore eta helburuen isla da: lehen mailako sare afektiboak lantzea, dirua eskuratzea kontsumo-maila handia edukitzeko eta aisiarako ahalik tarterik zabalena lortzea dira helburuok. Edonola ere, erantzun eredu hau batzuetan bateragarri izaten da gizarte-arazoekiko nolabaiteko sentiberatasunarekin. Horrela, adibidez, gazteen %10era ere heltzen ez diren arren erakundeen batean parte hartu duten edo hartzen dutenak, munduko bakea, inguramena, pobrezia edo arrazakeria, ikerketen arabera, interesatzen diren edo arriskuak hartzea merezi duten arazoak dira gazte horientzat.

Bigarren joera inguruko errealitatearen aurrean kolektiboki erreakzionatzen duten gazteek daukatena da. Erreakzio honek ñabardura eta tonalitate ezberdinak ukan litzake, amorru karga handiago edo txikiago eduki lezake, baina gizarte-kritika dosi handiak erakusten ditu eta jazotzen ari denari alternatibak planteatzen saiatzen da. Antolatu eta bizitzari aurre egiteko beste era batzuen eraiketan elkarlanean diharduten gazteak dira. Talde honen baitan sartzen dira gazteen elkarte-mugimendua osatzen dutenak, ezaugarri hauexek dituen mugimen-

dua berau: anitza da, planteamenduari eta gaiei dagokienez; bizia da, jarduerak sustatzen dituelako eta kalean presentzia daukalako; ugaria da, nahiz eta gazterik gehienek ez duten eginkorki parte hatzen; kritikoa da, xede eraldatzailea daukalako; instituzioekin harreman eta koordinazio handirik ez du; barreiatua da, elkartearteko koordinazio urria baitu; prekarioa da, bitartekorik ez dauka eta.

Bestalde, konpromiso eta partehartze maila behean dago une honetan. Esan daiteke gazte-elkarteak krisialdi egoeran daudela, partehartze, konpromiso eta militantzia maila baxuagatik, nolabait ezina ekina baino okerragoa dela sentitzen ari direla kolektibo horiek sorreratik xede dituzten gizarte-eraldakuntzako helburuak burutzeko orduan.

Arestian esandakoa elkartei oro har egozgarri zaien arren, badirudi garapenerako lankidetzan gazteriak izan duen mobilizazioa hazi egin dela nahikoa azken urteotan. Nola esplikatu daiteke hau? Lehen ikusian kontraesankor ematen duen egoera honen zergatiak bilatzean, honako elementu hauek ageri dira: gazteen artean “balore postmaterialistak” deritzenak izan duten gorakada, Hegoarekiko jarrera hobea, GGKEek, parte hartzeko beste erakundeen aldean (alderdiak eta sindikatuak), gazteengan piztu dezaketen sinpatia moduko bat, solidaritatea eta lankidetzaren kontsumo elementu berri gisa, zenbait erakundek gazteengan tirakada indartsua duten programei egindako bultzada, GGKEak enplegu-toki ere izatea, “praktika profesional” gisa harturiko zenbait boluntario-esperientziak *curriculum vitae*erako duten balioa, GGKEak norbere izatea aberasteko bide izatea, etab.

Faktore horietako asko aurreko paragrafoetan marraturiko profil soziokulturelekin ongi uztartzeak ezabatzen du itxuraz ageri den kontraesana. Gainera, ongi bereizi behar litzateke militantzia gogorra eskatzen duen partehartzea elkarrekin iraunkorra eskatzen ez duen partehartzetik. Azkena da gazteen artean nagusi dena: alde batetik, sentiberatasun sozialak nolabaiteko mobilizaziora eta uneko partehartzeetara bultzatzen du, baina bestetik, gai politikoekiko axolarik ezak eta konpromisoarekiko alergiaz moduko batek militantzia sakonagoa eragozten du.

Laburbilduta, gizarte-kausetikiko interesa bada neska-mutilen artean, baina honek ez daramatza konpromiso pertsonalera ez partehartze eginkorrera, prekariotasunean eta perspektibarik gabe bizi beharra dutelako aldez bederen. Bertoko eta nazioarteko solidaritatearen aldekoak, neskak nahiz mutilak, asko dira, baina ekintza solidarioetan sartu eta bustitzen direnak nahiko gutxiago dira. Erronka zera da: gazteriaren baitan kokoriko dauden interes eta sentiberatasun horiek ekintza eraldatzailerako nola mobilizatu jakitea.

Gazteria eta Garapenerako Heziketa

Testuinguru horrexetan bilakatzen da Garapenerako Heziketa (GH) eta testuinguru horrexek plantatzen dizkio hainbat erronka. GH honelaxe ulertzen da:

“errealitate globalaren azterketatik hasita, bertoko eta nazioarteko solidaritate balore eta jarrerak sustatzen dituen eta ekintza partehartzaile eta eraldatzailerak eramaten duen heziketa prozesua”. Definizio honetatik honako elementu nagusi hauek ateratzen dira: GHk pertsonak hezteko eginkizuna du, errealitatea aztertzeko irizpideak eskainiz eta pentsamendu kritikoa sustatuz; solidaritate balore eta jarrerak iltzatu behar ditu; ekintzarako da eta, horregatik, analisia ekintzarekin lotu behar du eta solidaritate-eremuan parte hartzeko bideak eskaini; GH, azken batean, gizarte-eraldaketarako tresna da.

Hezierari dagokionez, gazterik askok globalizazioak Iparreko eta Hegoko gizarteak dakartzkien ondorioen berririk edo ardurarik ez dutela kontutan hartuta, hezteko ekintzat sustatu behar dira, gazte jendeak solidaritate eta gizarte-eraldaketako lanei buruz daukan ezagutza eta lanotan eskaintzen dituen laguntza eta inplikazioa hobetzeko. Arriskua dago “solidaritatea” edo “garapena” bezalako hitzak eslogan huts eta mamirik gabeko hitz bihurtzeko. Horregatik, behar-beharrezko da errealitatearen analisi kritikoa egitea, iritziak trukatzea, garapen eutsigarriari buruz eztabaidatzea, norberaren eta inguruko jendearen bizierak auzitan jartzea. Bereziki garrantzitsua da Iparreko gizarteak Hegokoekin dituzten interdependentziak eta bertokoa-globala erlazioa ezagutzera ematea. GHko gakoan harturiko heziketa da planetaren hainbat alde ezberdinetan dauden “iparrak” eta “hegoak” deskubritzen dituen.

Azken urteotan, Garapenerako Heziketak hartu du inportantzia apur bat eremu formalean (irakaskuntza arautuan), 90eko hamarkadako hezkuntza-erreformak emandako ahalbideei esker. Hala ere., lan asko gelditzen da egiteko eremu honetan: irakasleen prestakuntza, ikasgelan landuriko eta bertara egokituriko materialak, irakasleen arteko koordinazioa, apustu indibidualak barik kolektibokak, eskolako partehartzea eta eraketa GHren perspektibatik antolatzea, etab. Aipagarri da, bestalde, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan egin den aurrerapenak ez duela izan antzekorik unibertsitate inguruan, irazteztasun osoa erakutsi baitu GHri dagokionez (lankidetzaren inguruko graduatuondokoak eta masterrak kenduta behintzat). Prestakuntza tekniko eta zientifiko itzela hartzen duten pertsonak errealitate globalaren oinarritzko alderdien ideiarik ere ez dute, edo euren diziplina eta ezagutzak kokatzeko marko globalik gabe daude, edo biktimak eragiten eta Iparrean eta Hegoan jendea desgizatzten duen garapen eredua auzitan jartzeko gai ez dira.

Hezkuntza ez-formalaren eremuan ere (elkarteak, aisia, etab.) aurrerapenak izan dira eta gazte-elkarteak GHko ekintzetan parte hartzen ari dira, baina oraindik ere inportantea da hezkuntza mota hori bultzatzea. Honetan sakon daitezkeen ildo batzuk hauek dira: hezitzaileen prestakuntza, norbere inguruko arazoak globalagoak diren beste batzuekin lotzea, Iparra-Hegoa ikuspegiak elkartearen ideia-multzo barruan txertatzea, elkartearen aurrekontuen portzentaia bat lankidetzarako ematea, Hegoko elkarteekin batera proiektuak edo anaitzeak burutzea, euren aldizkari eta antzekoetan interdependentziako gaiak sartzea, etab. Lan honetan GGKEak laguntzaile papera bete dezakete gazte elkarteetan.

Euskal gazteriaren zati zabal batek estimu handitan ditu solidaritate-kausak, baina gero jite indibidualistako erantzunak ematen ditu. Horregatik, GHk balore insolidarioak auzitan jarri eta errefusatzeko erronkari eutsi behar dio, egunerokotasunean eta globaltasunean solidaritatearen kultura (kontrakultura) sostengatzen duten balore alternatiboak proposatuz. Zehazki, hezkuntza informalaren eremuan, GHk ez die behar bezainbatean aurre egin sozializatzeko eta buruerak eta jarrerak moldatzeko ahalmen handia duten bi instantziari: familiari eta hedabideei.

GH ezin da mugatu informazio hutsera, solidaritate balore eta jarrerak ekintzan jartzen direnean bakarrik baitira balore. Testuinguru globalean, Hegoan lan egitea bezain beharrezko eta garrantzitsua da Iparrean egitea. GHk ekintzarako motibatu behar du gaztea. GGKEek ekintza interesgarriak eskaini behar dituzte, solidaritatearen aldeko lanean, bertokoan zein nazioartekoan, gazte jendearen ezagutza eta inplikazioa hobetzeko. Honelako ekintzak bultzatzea daiteke: analizatu, ikertu, prestatu, programatu, presionatu eta salatzea, eta ekintza ez hain maximalistak (mundu osoa aldatzea), ez hain frustrazio-ekarleak (ez dago ezer aldatzerik) eta, beraz, egingarriagoak, praktikoagoak, betegarriagoak proposatzea. Bestalde, Iparra-Hegoa interdependentziaren arabera, GHko ekintzei dimentsio globala emateko garaia da: honetan sareen, koordinazioaren, epe ertain eta luzerako fokaera estrategikoen arazo garrantzitsua sortzen da.

Indibidualismoaren eta inhibizio soziopolitikoaren aurrez aurre, konpromiso eta militantzia krisialdiaren aurrean, GGKEek parte hartzeko bide izan behar dute. Horretarako, ongi aztertu behar dute euren egiturek eta inertziek zer nolako erantzukizun maila duten oro har herritarrek eta bereziki gazteek parterik ez hartzean. GHaren barru-barruan boterearen eta demokraziaren auzia dago eta, horregatik, heziketa mota honen zeregina oinarri-mailako taldeak indartzea, ekintzarako animatzea eta beste talde batzuek dinamizatzeko lanean laguntzea da. Hau bereziki garrantzitsua da neska-mutil gazteen kasuan, sektore zabalak baitira konpromiso eta partehartze maila handia dutenak, elkartu eta lanean diharduten gazteak, beste gazteen dinamizatzailerik papera bete dezaketenak.

EHainbat eremu konpartitzen dute gazteek: auzunea, institutua, tailer teknikoak, aisiako taldeak, parrokiak, kirol jarduerak, unibertsitatea, etab. Gazte ekintzaileen euren lagunengana bideratuko balira, bertoko eta nazioarteko solidaritate-arekiko ardura zabal hedatzeko aukera leukakete. Gustu, interes eta gatazketan duten kideetasunak mezua jariatzen du, eta talde dinamizatzailerik sistematikoa izatera, bere ezagutzetan sakontzera eta gizarte-sektore ezberdinetako, kultura ezberdinetako, kideekin esperientziak eta ideiak trukatzeko eta elkarri komunikatzeko hasiera behartuko luke. Herri, hiri edo gizarte-sektore bateko gazteriaren aldaketa positiboa -kantitatezkoa eta kalitatezkoa- erdieste garrantzi handiko lorpena da eta ikasleek eta gazteriaren monitorean edo lankidetzako gazteek eskumenean dutena. GGKEak talde hauen laguntzaile izan daitezke.

Lankidetzako programak heziketarako lanabes gisa

Azken urteotan gehitu egin dira nazioarteko solidaritatean parte hartzeko gazte-ei egindako eskaintzak, batzuk administrazio publikoek eta besteak GGKEek eginak. Programok Eusko Jaurlaritzak eskainitako Euskal Gazteria Lankidea programaren antzekoak dira, non neska-mutilek Hegoko herrialderen baten errealitatea han bertan, *in situ*, ezagutzen duten, udako hiletan programa horretan elkarlanean diharduten GGKEen proiekturen batean esku hartuz. Programa hauek gazteen onarpen handia jasotzen dute eta sustatzen dituzten instituzio eta organismoen irudia ederreztatzen. Azken aldian hainbat beka, laguntza eta deialdi ere ageri dira, gazterientzat garapen proiektuetan parte hartzeko bizkorgarri direnak, zuzkidura handiak dituztenak eta gazte kopuru dexentea erakartzen dutenak. Programa hauek, batez ere lehenbizi aipatuek, GHko dimentsio garrantzitsua dute eta, horregatik, euroi buruzko balorazioa aurreko atalean egindako gogoeten argipean egin daiteke.

Programa hauek heziketa-dimentsioa daukate. GHrako lanabesak izango dira, gaztea bizi den errealitate globala aztertzeko tresnak luzatzen dituzten neurrian. Beraz, esperientzia hauek globalizazioari eta Iparra-Hegoa erlazioei buruzko analisiak ukan behar dituzte lagun; gazteek doazen herrialde, eskualde eta herrietako egoeraren benetako kausak, endogenoak eta exogenoak, ulertzen lagundu behar dute; eta urruneko errealitate horiek programan parte hartzen dutenen bizitzekin bigitatzeko gai izan behar dute. Analisi globalik gabe bizitako horrelako esperientziek Hegoari buruzko ikuspegi murrizgarri eta estereotipatuak sor ditzakete, lankidetzaren gurasokeriazko ideia akritikoa indartzen dutenak.

Beste alde batetik, programen helburu bat solidaritate balore eta jarrerak sustatzea da. Baina ez nolanahiko solidaritatezkoak. Gure garaiotan egiazko solidaritate agerpenekin batera indibidualismorako joera bortitza dagoenez gero, zer pentsatua ematen du programa hauek gazteen artean hain onarpen beroa eta askorena ukateak. Jartzen al dute auzitan beraien baloreak eta bizitzeko era? Balio al diete euren eguneroko insolidaritate- praktikak auzitan jartzeko? Laguntzen al diete euren motibazioak berraztertzen eta lotsagabeki norberekoiak bederen depuratzen? Horregatik, programak galdera eta jarrera horiek sortarazten laguntzen duen heinean dira positiboak, eta ez dira positiboak, azkenean gazteengan aldaketa pertsonal ez estrukturalik inplikatzan ez duen solidaritate “bigun” baten ideia sendotzen baldin badute. Airean geratzen da galdera bat, alegia, neska nahiz mutilarentzat esperientzia horietan parte hartzeak zein neurritako “kostu” edo inplikazio pertsonala duen. Sakoneko galdera hemen ea zer motatako bolondrestasuna bultzatzen ari garen da.

Galdera honi erantzuteko irizpide interesgarri bat zera ikustea litzateke, alegia, ea esperientzia hauek zein neurritan mobilizatzen dituzten gazteak solidaritate-

aren eta gizarte-eraldakuntzaren alde. Logikoa denez, deialdietara doazenen zati bat solidaritatezko lanetan lehendik ere sartuta dauden pertsonak dira eta, halaber, egia da partehartzaileetarik asko gero sartzen direla zeregin horietara, baina beti ez da hala gertatzen.

Gainera, karga afektibo handia izan ohi duten esperientziak dira eta batzuetan “tripetan barrena” sartzen direnak, eta horregatik laguntzaren edo lagunen bat behar izaten da bizi izandakoa prozesatzeko. Aipagarri da, halaber, programoi esker leku ezberdinetako jendearen artean giza loturak eta sareak sortzea errazten dela, eta hau oso positiboa da. Edonola ere, GGKEak ez dute beti jakiten neska-mutilen energia eta ilusio emariari bide ematen, ez eta sorturiko lotura horri iraupena eta egonkortasuna segurtatzen ere.

Bultzatu beharreko beste alderdi bat mota horretako programen talde-dimentsioa da. Hala ere, partehartzailerik asko elkarte, talde eta klubetako... kide izan ohi dira. Litekeena da oinarriko gazte taldeak elkartzeko moduren bat asmatzea, hala prestakuntzan nola geroko zenbait lanetan, eta honek jende gehiago inplikatzea ekarriko luke. Honetan ere, GGKEek euren giza baliabideak eta azpiegiturak taldeen eta pertsonen zerbitzutan jar litzateke, harremanak errazteko bitartekari izanez.

Egin beharreko beste galdera bat, azkena baina oso inportantea, Hegoko jendeak mota horretako programen diseinu, jarraipen eta ebaluazioan duen paperari buruzkoa da. Gerta liteke programok erakunde sustatzaileen eta parte hartzen duten GGKEen interesetik pentsatuak izatea gehiago, Hegoko pertsona eta erakundeen irizpide eta interesetatik baino. Beharrezko da, beraz, mekanismoak ezartzea programon inguruko erabakiak hartzen Hegoak eginkorki esku har dezan bermatzeko.